


ESTATUTU SOZIALAK



LABORAL 
kutxa

Batzar Nagusia – 2013.04.27

Aurkidea

Orrialdea

I. kapitulua. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.	Izena eta esparrua	1
2. artikulua.	Xedea	1
3. artikulua.	Iraupena eta egoitza soziala	1
4. artikulua.	Hizkuntza ofizialak	2

II. kapitulua. BAZKIDEAK

5. artikulua.	Nor izan daitekeen bazkide	3
6. artikulua.	Onartzeko baldintzak	3
7. artikulua.	Onarpenari buruzko erabakia	4
8. artikulua.	Onarpenaren publizitatea	4
9. artikulua.	Onarpenari aurka egitea	4
10. artikulua.	Erantzukizuna	5
11. artikulua.	Bazkideen betebeharrak	5
12. artikulua.	Bazkideen eskubideak	6
13. artikulua.	Jarduera-erregimena	6
14. artikulua.	Informazio-eskubidea	7
15. artikulua.	Bazkideen bajak	8
16. artikulua.	Kanporatzea.....	9
17. artikulua.	Diziplina-arauak	10
18. artikulua.	Hutsegiteen sailkapena	10
19. artikulua.	Zigorak	14
20. artikulua.	Zigor-prozedurak	16
21. artikulua.	Bajen ondorio ekonomikoak	19
22. artikulua.	Lan-bazkideen probaldia	19
23. artikulua.	Gizarte Segurantzaren erregimena	20
24. artikulua.	Lan-bazkideen barne-antolamendu funtzionala	20
25. artikulua.	Bazkide laguntzaileak	21

III. kapitulua. KOOPERATIBAREN ORDEZKARITZA ETA GESTIOA

26. artikulua.	Organo sozialak eta Zuzendaritza	22
27. artikulua.	Batzar Nagusia	22
28. artikulua.	Ohiko eta aparteko Batzar Nagusiak. Deialdia	24
29. artikulua.	Batzarraren funtzionamendua	25
30. artikulua.	Boto-eskubidea	26
31. artikulua.	Ordezkaritza-eskubidea	26
32. artikulua.	Erabakiak hartzea	27

Aurkidea

Orrialdea

33. artikulua. Batzarraren akta	28
34. artikulua. Batzar Nagusiaren erabakiei aurka egitea	28
35. artikulua. Kontseilu Errektorea	29
36. artikulua. Kontseilu Errektoreko kideak	31
37. artikulua. Ezintasunak eta bateraezintasunak	32
38. artikulua. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua	34
39. artikulua. Kontseiluko kideen ordainsariak	34
40. artikulua. Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizunak	34
41. artikulua. Kontseilu Errektorearen erabakiei aurka egitea	34
42. artikulua. Zuzendari nagusia	35
43. artikulua. Kontu-hartzaileak	36
44. artikulua. Errekurtso Batzordea	37

IV. kapitulua. EKONOMIA ARAUBIDEA

45. artikulua. Kapital soziola	38
46. artikulua. Nahitaezko ekarpenak	38
47. artikulua. Borondatezko ekarpenak	39
48. artikulua. Ekarpenak nola eguneratuko diren	39
49. artikulua. Ekarpenak nola eskualdatuko diren	39
50. artikulua. Sarrera-kuotak	40
51. artikulua. Bazkide laguntzaileen ekonomia-araubidea	40
52. artikulua. Ekitaldiko emaitzak	40
53. artikulua. Soberakinak nola erabiliko diren	40
54. artikulua. Galerak nola goetziko diren	41

V. kapitulua. DESEGITEA ETA LIDIDAZIOA

55. artikulua. Desegiteko arrazoiak	42
56. artikulua. Likidazioa	42
57. artikulua. Sozietatearen ondasunak eta azken balantzea nola esleituko diren	43
58. artikulua. Iraungipena	44

Lehen xedapen gehigarria . Epeak nola zenbatuko diren	45
Bigarren xedapen gehigarria. Mondragon Corporacion Cooperatibako kide izatea	45

Lehen xedapen iragankorra . Lehen Kontseilu Errektorea	45
Bigarren xedapen iragankorra. Ikuskaritza Batzordea	46
Hirugarren xedapen iragankorra. Gutxieneko ekarpena eta partaide- tza-modulua	46
Laugarren xedapen iragankorra. Organo sozialen jarduera-araudia...	46



I. kapitulua XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izena eta esparrua

Bat. Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito-ren eta Ipar Kutxa Rural Kreditu Kooperatibaren arteko bat-egitearen ondorioz, kreditu-kooperatiba bat eratu da. Haren izena hau da: “Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito”, aurrerantzean “Kooperatiba” edo “Entitatea”.

Bi. Estatutu hauetan ezarritakoari jarraituko dio eta, bertan aurreikusten ez diren gaitan, kreditu-kooperatibei buruzko 1989ko maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak ezarritakoari, bere garapen-arauei, orokorrean Kreditu Entitateen jardura arautzen duten legeei eta aplikagarri izan daitezkeen xedapenei. Izaera ordeztalez, Kooperatiben legeria izango zaio aplikagarri.

Hiru. Bere jardura ez da lurralde-esparru batera ere mugatuta egongo.

2. artikulua. Xedea

Bazkideen eta hirugarrenen premia finantzarioei kreditu-entitateek berezkoak dituzten jardueren bidez erantzutea du helburu. Horretarako, gainerako kreditu-erakundeei baimenduriko aktiboko, pasiboko zein zerbitzuko eragiketa guztiak burutu ditzake, baita eragiketa osagarriak eta instrumentalak ere, inbertsio-zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak eta xede kooperatiboak sustatu nahiz hobeto betetzeko balio dutenak barne, betiere bazkideen finantza-beharrei lehentasuna emanaz eta hirugarrenetik aktiboko eragiketen legezko mugak errespetatuz.

Orobat, beste pertsona fisikoekin edo juridikoekin sozietate-loturak edo partzuergoak era ditzake, eta dagozkien merkatu antolatuetako kide izan, arau erregulatzailerik hori baimentzen badute, bere helburu soziala betetzeko garatzen dituen enpresa-jarduerak erraztu eta bermatzeko xedez.

Bazkide ez diren hirugarrenekin jarduerak eta zerbitzuak bidera ditzake, eta horretarako muga bakarrak indarrean den legediak jasotzen dituenak izango dira.

3. artikulua. Iraupena eta egoitza soziala

Bat. Kooperatibaren iraupena mugagabea izango da.

Bi. Egoitza soziala Arrasaten (Gipuzkoan) izango du, Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g. helbidean.

Horrez gain, azpiegoitza operatiboa izango du Bilbon, Areatzako pasealekua, 4 helbidean. Bai egoitza bai azpiegoitza udalerrri bereko beste helbide batera aldatu daitezke, Kontseilu Errektorearen erabakiz.

Egoitza sozialaren edo azpiegoitzaren bestelako edozein helbide-aldaketa egiteko Estatutuak aldatzeko akordioa beharko da, horietan finkatutako gehiengo bidez.

4. artikulua. Hizkuntza ofizialak

Euskara izango da, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala. Behar diren neurriak hartuko dira gero eta gehiago heda dadin.

II. kapitulua BAZKIDEAK

5. artikulua. Nor izan daitekeen bazkide

Estatutuetan eta indarrean diren legezko aginduetan finkatuta dauden baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak izan daitezke bazkide.

Horrez gain, Kooperatibako langileak ere lan-bazkide izan daitezke.

Era berean, 25. artikuluan agindutakoa betetzen duten pertsona fisikoak bazkide laguntzaile izan daitezke.

6. artikulua. Onartzeko baldintzak

Bat. Bazkide izan nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek dagokien eskaera idatzia aurkeztu beharko dute. Bertan, Estatutu hauek eta ekarpenei eta indarrean diren gainerako akordioei buruzko konpromisoak onartu egiten dituztela adieraziko dute. Eskaerarekin batera, adinez nagusia izatea edo nortasun juridiko osoa izatea egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da, baita egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko dokumentazioa ere. Pertsona fisikoek Estatutuetan ezarritako gutxieneko partaidetza-modulua bete beharko dute, etenik gabe, onartzeko eskaera egin baino 12 hilabete lehenago. Orobat, nomina, pentsioa, jarduera ekonomikoak eragindako ordainsariak edo horien pareko aldizkako diru-sarrerak Entitatean helbideratuta izan behar dituzte.

Bi. Langileek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte, lan-bazkide izateko:

- a) Adinez nagusia izatea.
- b) Sei hilabeteko probaldia gainditzea. Probaldian zehar, bai Kooperatibak bai bazkidegaiak aukera izango dute elkarren arteko harremana libreki eteteko.

Dena den, Batzar Nagusiak finkatutako lanpostuetan hemezortzi hilabetera artekoa izan daiteke probaldia, lanpostuok betetzeko baldintza pertsonal bereziak behar direnean. Bi aldeak ados jarriz gero, probaldia murriztu edo kendu egin ahal izango da.

Ez da aipatutako probaldia bete behar izango, baldin eta bazkide berriak tarte hori Kooperatiban besteren konturako langile gisa eman badu lanean.

Besteren kontura lanean emandako denbora bazkidegaiari dagokion probaldia baino laburragoa bada, sozietate-kontratua egindakoan kontuan hartuko zaio epe hori probaldiari dagozkion ondorioetarako.

- c) Onarpen-eskabidean, Estatutu hauetan eta indarrean dauden gainerako erabakietan adierazten diren ekarpenei, baldintza sozio-laboralei eta erantzukizun osagarriari buruzko konpromisoak onartzea.

Hiru. Aurreko bat eta bi ataletan finkaturikoaz gain, bazkidegaiak ezin izango dira berankortasun-egoeran egon Kooperatibarekin.

7. artikulua. Onarpenari buruzko erabakia

Kontseilu Errektoreari dagokio onartzeari buruzko erabakiak hartzea, eta bidezko arrazoia dagoenean bakarrik erabaki ahal izango du ez onartzea. Honako hauetan oinarrituko da onarpena ukatzeko:

- a) Kooperatibaren ahalmen finantzarioan.
- b) Bazkide izan nahi duten entitateen egoera ekonomiko eta sozialari eta gainerako bazkideen jardueretik bateragarritasunari buruzko txosten teknikoetan.
- c) Entitatea zuzendu, administratu, antolatu eta funtzionatzeko dagoen lan-bazkide berrien behar objektiboan.
- d) Zuzendaritzak probaldien ondoren egindako txostenetan.
- e) Legeak edo estatutuek onarpenaren inguruan galdatzen duten edozein baldintza ez betetzean.

8. artikulua. Onarpenaren publizitatea

Eskatzailea, pertsona naturala nahiz juridikoa, onartzeko edo ez onartzeko erabakia eskaera jaso eta hurrengo hirurogei egunetan hartuko da. Erabakia berehala jakinaraziko zaio eskatzaileari edo bere legezko ordezkariari, eta era berean, elkartearen egoitza sozialeko iragarki-taulan ikusgai jarriko da. Kontseilu Errektoreak arrazoiak eman beharko ditu ez onartzea erabakitzen badu.

9. artikulua. Onarpenari aurka egitea

Bat. Eskatzaileak ukapen-erabakiari aurka egin ahal izango dio Errekurtso Batzordean, eta hogeit hamar eguneko epea izango du horretarako, Kontseilu Errektoreak erabakia jakinarazi dion egunetik edo Kontseiluak erabakia hartzeko jarrita duen azken egunetik aurrera.

Bi. Onarpen-erabakiari aipatutako organo sozialean egin ahal izango zaio aurka, betiere onarpen-erabakia ezagutzera eman eta hamar eguneko epean, gutxienez bazkideen ehuneko hamarrak hala eskatzen badu. Eskatzailea ez da bazkide izango onarpenari aurka egiteko epea igaro arte edo, aurka egin bazaio, Errekurtso Batzordeak erabakia hartu arte.

Hiru. Errekurtso Batzordeak bozketa sekretu bidez ebatziko ditu aurreko bi ataletan aipatutako errekurtsoak. Bi suposamenduetan, interesatuari entzun beharko zaio aurretiaz.

10. artikulua. Erantzukizuna

Bazkideek zor sozialetan duten erantzukizuna beraien ekarpenetara mugatuko da. Kooperatiban baja hartu duten bazkideei, ordea, dagozkien likidazioak egin eta ordaindutakoan desagertu egingo zaie erantzukizun hori, eta ezin izango zaie ezer ere eskatu entitateak bazkidea banandu baino lehen egindako zorreatatik.

11. artikulua. Bazkideen betebeharrak

Bat. Bazkideek ondorengo betebeharrak dituzte:

- a) Batzar Nagusiaren eta partaide den gainerako organoen bileretara joatea.
- b) Kooperatibako organo sozialek hartutako baliodun erabakiak betetzea.
- c) Kooperatibako datuak eta gaiak isilpean gordetzea, baldin eta ezagutzera eman ez gero bidezko interes sozialei kalte egiteko arriskua badago.
- d) Kooperatibaren enpresa-jarduerentzat konpetentzia izango den lanik ez egitea, Kontseilu Errektoreak berariazko baimenik ematen ez badu.
- e) Eman zaizkien karguak onartzea, ez onartzeko arrazoi justurik ez badute.
- f) Kapital sozialari egin beharreko ekarpena aurreikusitako eran eta epeetan ordaintzea.
- g) Helburu sozialarekin zerikusia duten zerbitzu eta jardueretan parte hartzea, baita prestakuntzazkoetan ere.
- h) Giro ona sustatzea, eta zuzendaritzakoekin eta gainerako bazkideekin dituzten harremanetan errespetuan oinarritzea.
- i) Kooperatibaren edo, oro har, Kooperatibismoaren kontra ez hitz egitea jende artean eta nahita.
- j) Lege eta estatutuetako gainerako betebeharrak betetzea.

Bi. Entitate elkartekideek, gainera, betebeharrak ere izango dituzte:

- a) Entitate edo kooperatiba elkartekideek memoriak, balantzeak eta eskatutako antzeko agiri edo datuak igorri beharko dizkiote Entitateari, eta honek egoki deritzonean, kontabilitatea edo administrazioa ikuskatzeko bidea eman beharko dute.
- b) Helburu sozialaren ondoriozko jarduera eta zerbitzuetan parte hartu beharko dute. Horretarako, 20.000 €-ko gutxieneko partaidetza-modulua finkatu da aktiboki nahiz pasiboki jarduteko.

Hiru. Bakarkako bazkideentzat 10.000 eurokoa izango da aktiboki edo pasiboki jarduteko gutxieneko partaidetza-modulua.

12. artikulua. Bazkideen eskubideak

Bat. Honakoak dira bazkideen eskubideak:

- a) Organo sozialetako karguetarako hautesle eta hautagai izatea.
- b) Batzar Nagusiaren eta partaide diren gainerako organo sozialen erabakietan hitza eta botoa dutela parte hartzea eta proposamenak egin ahal izatea.
- c) Eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar duten informazioa jaso ahal izatea.
- d) Kooperatibak helburu soziala betetzeko gauzatzen dituen enpresa-jardueretan inolako diskriminaziorik jasan gabe parte hartzea.
- e) Kapital sozialari egindako ekarpenen ondorioz interesak jasotzea.
- f) Itzulkin kooperatiboa jasotzea.
- g) Kapital sozialari egindako ekarpenak eguneratuta izatea eta bueltan jasotzea.
- h) Lege eta estatutuetako gainerako eskubideak.

Bi. Lege eta estatutuetako arauen eta Kooperatibako organo sozialek hartutako baliodun erabakien arabera gauzatuko dira eskubide horiek.

13. artikulua. Jarduera-erregimena

Estatutu hauetan finkatutako betebeharrak eta eskubideei kalterik eragin gabe, Entitateak eta berari elkarturiko entitateek, ados jarriz gero, jarduera-erregimenari buruzko eskubide eta betebeharrak ezarri ahal izango dituzte, eta kasuan kasuko kontratuak sinatuko dituzte horrelakoetan. Aipatutako kontratuek Mondragon Corporación Cooperativarekiko lotura-mailari egiten diote erreferentzia.

14. artikulua. Informazio-eskubidea

Bat. Bazkideek informazio-eskubidea erabili ahal izango dute Legeetan, Estatutu hauetan eta Batzar Nagusiaren erabakietan aurreikusitakoei jarraiki.

Bi. Kontseilu Errektorearen erantzukizuna izango da bazkideei Kooperatibako Estatutuen, Barne Araudiaren eta bertan egindako aldaketen kopia bana ematea.

Hiru. Bazkide guztiek dute Kooperatibako bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusiko Akta Liburua irakurtzeko eskubidea. Bazkideren batek eskatzen badu, Batzar Nagusietan hartutako erabakien kopia ziurtatua emango dio Kontseilu Errektoreak.

Halaber, bazkideren batek eskatuz gero, berorregan (indibidualki edo kolektiboki) eragina duten Kontseiluaren erabakien kopia ziurtatua emango dio Kontseilu Errektoreak.

Lau. Bazkideren batek eskatzen badu, Kooperatibarekiko duen harreman ekonomikoa zertan den erakutsi eta azalduko dio Kontseilu Errektoreak, eta hilabeteko epea izango du horretarako.

Bost. Batzar Nagusiak gai-zerrendaren arabera ekitaldi ekonomikoaren kontuak aztertu eta horiei buruzko erabakiak hartu behar dituzenean, deialdia ezagutzera eman den egunetik Batzarra egin arte, dokumentu hauek utzi beharko dira ikusgai Kooperatibaren helbide sozialean: Balantzea, Galera eta Irabazien Kontua, Azalpen Txostena eta mozkinak banatu edo galerak egoztearen inguruko proposamena. Epe horretan, dokumentu guztiak aztertu eta Kontseilu Errektoreari egoki deritzeten azalpenak idatziz eskatzeko aukera izango dute bazkideek. Batzarrean emango zaizkie erantzunak, baina Batzarraren aurreko bost lanegunetan egin beharko dute eskaera.

Gai-zerrendan ekonomiari lotutako edozein gai sartzen bada, aurreko paragrafoan adierazitakoak bete beharko dira, baina oinarritzko dokumentazioa Batzarrean aztertu beharreko gai ekonomikoari buruzkoa izango da, eta kontu-hartzaileen txostena ez da beharrezkoa izango.

Sei. Bazkideek Kooperatibaren edozein alderdiri buruz egoki deritzeten azalpen eta txostenak eskatu ahal izango dizkiote Kontseilu Errektoreari idatziz. Idazkia aurkeztu zutenetik zortzi egun igaro ondoren egingo den lehen Batzar Nagusian erantzunak die Kontseiluak.

Zazpi. Bazkideen 100eko 10ek edo ehun bazkidek Kontseilu Errektoreari egoki deritzoten informazioa idatziz eskatuz gero, Kontseiluak eman egin beharko die, idatziz eman ere, gehienez hilabeteko epean.

Zortzi. Bost, Sei eta Zazpigarren ataletako suposamenduetan, Kontseilu Errektoreak eskatu zaion informazioa ez ematea erabaki ahal izango du, Kooperatibaren bidezko interesak arrisku larrian jar badaitezke. Dena den, ezin izango du informaziorik ukatu Batzarrean eman beharrezkoa bada eta bertaratu eta ordezkatutakoen erdiak baino gehiagok eskatzen badiote, eta gainerako kasuetan, informazioa eskatu duten bazkideek jarritako errekurtsuaren ondorioz, Errekurtsu Batzordeak erabaki badu.

Hala ere, Kontseilu Errektoreak eskatutako informazioa ez ematea erabakitzen badu, eskatzaileek beti izango dute erabakiari aurka egiteko eskubidea, Estatutu hauetako 34. artikuluan adierazitako prozedurari jarraiki.

Bederatzi. Aurreko zenbakietan bazkideentzat arautu diren eskubideei kalterik eragin gabe, Batzar Nagusiak Batzordeak sortzeko eta arautzeko eskubidea izango du, bazkideentzat Kooperatibaren jardunbideari buruzko ahalik eta informazio gehien lor dezaten.

15. artikulua. Bazkideen baja

Bat. Bazkide batek edonoiz hartu ahal izango du borondatezko baja Kooperatiban, baina Kontseilu Errektoreari idatziz jakinarazi beharko dio erabakia, hilabete lehenago, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Erabakia aurretiaz jakinarazteko epea bete ezean, kasuan kasuko kalte-galerak ordaindu beharko ditu bazkideak. 21. artikuluko laugarren atalean aurreikusitako ondorioetarako, erabakia aurretiaz jakinarazteko epea bukatutakoan emango zaio baja bazkideari.

Bi. Estatutu hauetan aurreikusi ez diren betebeharrak edo zama oso larriak eragingo dituen erabakiren bat hartu badu Batzar Nagusiak, eta bere botoa salbatuta daukan edo Batzarrean izan ez den bazkideren bat ez badago ados erabaki horrekin, baja hartzeko eskubidea izango du bazkide horrek, eta arrazoizkotzat hartuko da, gainera, baja. Idatziz egin beharko dio eskaera Kontseilu Errektoreari, eta berrogei eguneko epea izango du horretarako, erabakia hartu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hiru. Bazkideren bat ez badago ados Kontseilu Errektoreak bere borondatezko bajaren sailkapen eta eraginaren inguruan hartutako erabakiarekin, 34. artikuluan aurreikusitako prozesu-arauei jarraiki egin ahal izango dio aurka. Gainera, aukera izango du aurretik Errekurtso Batzordeari errekurtsoa aurkezteko. Hilabeteko epea izango du, Kontseilu Errektorearen erabakia jakinarazi dioten egunetik aurrera. Errekurtsoa jarriz gero, bertan behera geratuko dira gainerako ekintzen iraungipen-epeak.

Lau. Bazkide izateko eskatzen diren baldintzak galtzen dituen bazkideak utzi egin beharko dio derrigorrez bazkide izateari. Kontseilu Errektoreak ofizios hartuko du nahitaezko baja emateko erabakia, edozein bazkideren edo bazkide izaten jarraitzeko baldintzak betetzeari utzi dion bazkidearen eskaeraz. Baina erabakia hartu aurretik, interesatuari entzun beharko dio.

Bazkidea ados ez badago, Kontseilu Errektorearen erabakiaren kontrako errekurtsoa jartzeko aukera izango du, 16. artikuluko Bi, Hiru eta Laugarren ataletan gai horretarako zehaztutakoekin bat.

Nahitaezko baja arrazoizkotzat hartuko da, baldin eta baldintzak galtzea ez bada izan bazkidea Kooperatibarekiko betebeharrak nahita saihesten saiatzeagatik edo nahitaezko baja bidegabeko onurak lortzeko erabiltzeagatik. Justifikatu gabeko nahitaezko bajetan, Kooperatibak kasuan kasuko kalte-galerak eskatu ahal izango dizkio bazkideari.

16. artikulua. Kanporatzea

I) HUTSEGITE SOZIALENGATIK

Bat. Kontseilu Errektoreak soilik hartu ahal izango du bazkideak kanporatzeko erabakia, betiere Estatutuetan tipifikatutako hutsegite oso larriren bat egin bada. Nahitaezkoa izango da, halaber, horretarako izapidetutako espedientea bideratzea eta aurretiaz interesatuari entzutea.

Kanporatzeko erabakiaren arrazoia bazkideak betebeharrak ekonomikoak ez bete izana denean, zenbat denbora igaro den kontuan hartu gabe kanporatu ahal izango dute, baldin eta bazkideak bere egoera erregularizatu ez badu.

Bi. Bazkideak Errekurtso Batzordeari errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio kanporatzeko erabakiaren kontra, erabakiaren berri izan eta hurrengo hilabetean.

Errekurtso Batzordeak bi hilabeteko epea izango du, aurkezpen-egunetik aurrera, errekurtsoari buruzko erabakia hartzeko, baina interesatuari entzungo dio aurrena. Epe hori igaro ondoren ebatzi eta jakinarazi ez bada, onartutzat joko da errekurtsoa.

Hiru. Kanporatzeko erabakia Errekurtso Batzordearen berrespena jakinarazitakoan izango da exekutagarria, edo bestela, Batzorde horri errekurtsoa jartzeko finkatuta dagoen epea igarotakoan.

Dena den, lan-bazkideen kasuan, Kontseilu Errektoreak kanporatzeko erabakia hartzeaz bat bazkideari lana kentzeko aukera izango du Kooperatibak, baina hala ere, lanean ari zenean zituen eskubide ekonomiko berberak izaten jarraituko du.

Lau. Kanporatzeko erabakiari kontra egiteko aukera izango du bazkideak, 34. artikuluan aurreikusitako prozesu-bideari jarraituz. Hilabeteko epea izango du hori egiteko, eta erabakia exekutagarri bihurtu den eguna izango da epearen abiapuntua.

II) LANEKO HUTSEGITEENGATIK

Bost. Zigor-proposamena kanporatzea denean, bazkide erruztatuak deskargua egin ahal izango dio Kontseilu Errektoreari, zuzendari nagusiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hogeit hamar egunetan.

Sei. Kontseilu Errektoreak hogeita hamar egun izango ditu, deskargua jaso duen egunetik aurrera, hutsegitearen sailkapena eta zigor-proposamena berresteko edo ez onartzeko, baina erabakia hartu aurretik Kontseilu Sozialeko kideei entzun beharko die.

Zazpi. Kontseilu Errektoreak kanporatzeko erabakia berretsiz gero, bazkideak errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Errekurtso Batzordeari, erabakiaren berri izan eta hurrengo hamabost egunetan.

Zortzi. Kanporatzeko erabakia exekutagarri bihurtzeko ezinbestekoa izango da Errekurtso Batzordeak berrespena ematea edo Kontseilu Errektoreari deskargua egiteko eta Errekurtso Batzordeari errekurtsoa aurkezteko epea bukatuta egotea. Dena den, Errekurtso Batzordeak erabakia hartu arte, bazkideari lana kentzeko aukera

izango du Kontseilu Errektoreak, baina lanean ari zenean zituen eskubide ekonomiko berberak izaten jarraituko du hark.

Bederatzi. Kontseilu Errektoreak ez badu kanporatzeko proposamena onartzen, egoki deritzon zigorra ezarriko du, eta bazkideak horren aurka ere errekurtoa jarri ahal izango du Errekurtso Batzordean, Kontseilu Errektoreak erabakia jakinarazi ondorengo zortzi egunetan. Dena den, zigorra Kontseilu Errektoreak erabaki duen unean bertan izango da exekutagarria.

17. artikulua. Diziiplina-arauak

Erantzukizunezko giro sozial egokia egongo dela ziurtatzeko eta Kooperatibako bazkideen eta gestio ekonomikoaren artean inolako oztoporik ez sortzeko, diziiplina sozialari buruzko erregimena finkatu dugu. Bi alderdi bereizi ditugu: batetik, hutsegite sozialei ezarriko zaien erregimena, eta bestetik, lan-bazkideei lanean ari direla egindako hutsegiteengatik ezarriko zaiena. Ondorengo artikuluetan zehaztuko ditugu aipatutako erregimenaren funtsak.

18. artikulua. Hutsegiteen sailkapena

A) HUTSEGITE SOZIALEN SAILKAPENA

Bat. Hutsegite sozialak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Bi. Hutsegite arinak:

- a) Kooperatibaren helburuen ordena eta garapen egokirako ezarrita dauden arauak ez betetzea.
- b) Estatutuetako arauak edo funtzionamendu-erregelamendu eta arauak ezjakintasun desenkusaezinaren ondorioz ez betetzea, betiere hutsegitea Estatutu hauetan larritzat edo oso larritzat hartuta ez badago.
- c) Deia jaso arren, ekintza sozialetara eta, bereziki, Batzar Nagusietara ez joatea, justifikatutako arrazoirik izan gabe.
- d) 11. artikuluko Bi a) atalean aurreikusitako informazioa garaiz ez bidaltzea.

Hiru. Huts-egite larriak:

- a) Hutsegite arinak errepikatzea: entitate elkartekideek hiru urteko epean eta gainerako bazkideek urtebeteko epean.
- b) Kooperatibaren fondoak 2. artikuluan aurreikusitako kreditu-laguntzak edo bestelakoak eskatzerakoan adierazi diren helburuetarako ez erabiltzea.

- c) Eman zaizkien kargu sozialetan arduraz ez aritzea.
- d) Eman zaizkien kargu sozialak ez onartzea edo dimititzea, Biltzar Nagusiak arrazoi justifikaturik ez dagoela uste badu.
- e) Kontseilu Errektoreak baimenik eman gabe, helburu sozial bera edo antzekoa duen beste entitate bateko kide izatea edo harentzat jardutea.
- f) Kreditu-laguntza, merkataritza-arrisku edo sinaduradun bermeen eskaerekin zerikusia duten txosten edo jakinarazpenetan axolagabekeriako omisioak egitea.
- g) 11. artikuluan aurreikusitako betebeharrak ekonomikoak eta gainerakoak atzeratzea edo ez betetzea.

Lau. Hutsegite oso larriak:

- a) Hutsegite larriak errepikatzea: entitate elkartekideek hiru urteko epean eta gainerako bazkideek urtebetean.
- b) Kreditu-laguntza, merkataritza-arrisku edo sinaduradun bermeen eskaerekin zerikusia duten txostenetan edo jakinarazpenetan omisioak nahita egitea edo gertakariak faltsutzea.
- c) Bazkideak Kontseilu Errektoreari dagozkion eginkizunak bere gain hartzea.
- d) Kooperatibaren funtzionamendua arautzen duten xedapenak nabarmen haustea.
- e) Duten izaeraren ondorioz, Kooperatibaren interes materialari edo izen onari kalte egin diezaioketen jarduerak gauzatzea, besteak beste, kompetentziazko eragiketetan aritzea, Entitateko zuzendari eta ordezkariekin begirunerik gabe jokatzeko, ekarpenetan iruzur egitea eta fondoak bidegabeki erabiltzea.
- f) Bazkide izateaz baliatuta, espekulaziozko edo legearen kontrako jarduerak gauzatzea.
- g) Kooperatibaren oinarri sozial eta ideologikoei sistematikoki kontra egitea eta proselitismo publikoa gauzatzea.
- h) Kooperatibako gutun eta dokumentuetako sekretua haustea edo derrigorrez isilpean gorde beharreko datuak ezezagunei adieraztea.
- i) Kolusio-letrak edo igorriak faktura egin aurretik negoziatzea.
- j) Eragiketa aktiboetan interes-tasa hobaritzearen edo arriskuak barkatzearen ondoriozko betebeharrak eta baldintzak ez betetzea.

B) LANEAN EGINDAKO HUTSEGITEEN SAILKAPENA

Bost. Hutsegite arinak:

- a) Arrazoi justifikaturik izan gabe, hilabetean lau orduz lanera ez etortzea.
- b) Axolagabekeria edo desenkusaezinezko hutsegitea, Kooperatibaren interesei kalterik eragin ez badie.
- c) Istripu arina eragin duen arreta-falta, eta istripuak ekiditeko jarraibideak betetzerakoan huts egitea.
- d) Lana arrazoi justifikaturik izan gabe uztea eta lan-orduetan edo lantokian bertan lanarekin zerikusirik ez duten izaera arineko jarduerak gauzatzea.
- e) Bazkideari emandako zereginak eta erantzukizunak behar bezala betetzeko oztopo arin diren ekintza edo omisioak.

Sei. Huts-egite larriak:

- a) Urtebetean hainbat hutsegite arin egitea.
- b) Arrazoi justifikaturik gabe, hilabetean hamasei orduz lanera ez etortzea.
- c) Jendearenganako begirunerik eza eta lankideenganako ahozko edo egitezko tratu txarrak.
- d) Lotsagabekeria edo pertsona zein gauzei kalte egiteko moduan protesta egitea, eta hutsegite arinen ondorioz ezarritako zigorrak ez betetzea.
- e) Errendimendurik eza, diziplinarik eza eta mailaz goragokoek lanaren inguruan emandako aginduak ez betetzea.
- f) Istripu larria eragin duen arreta-falta.
- g) Sekretu profesionala haustea, nahiz eta kalterik ez eragin.
- h) Segurtasun Arauak nahita edo axolagabekeria ez betetzea.
- i) Agiri, gutun eta datuak baimenik gabe atxikitzea eta ez dagozkien helburu edo erabilerak ematea.
- j) Lan-orduetan norbere lanak egiten aritzea eta Kooperatibaren tresneria, materialak eta baliabideak norberarentzat erabiltzea.
- k) Zuzendariak eta ahaldunek bezeroei kredituak eta arriskuak emateko

dituzten ahalmen eta eskumenak erabiltzerakoan justifikaziorik gabeko gehiegikeria larriak egitea, eta ahalmen eta eskumen horiek ez dituztenek justifikaziorik gabe berenganatzea.

- l) Departamentuei edo sukurtsalei ez laguntzea Kooperatibak egoki funtzionatzeko egin behar dituzten funtzioak gauzatzen.
- ll) Lana bertan behera uztea, izaera larriz eta arrazoi justifikaturik gabe.
- m) Bazkideari emandako zereginak eta erantzukizunak behar bezala betetzeko oztopo larri diren ekintza edo omisioak.

Zazpi. Hutsegite oso larriak:

- a) Urtebetean hainbat hutsegite larri egitea.
- b) Arrazoi justifikaturik gabe, hilabetean berrogei orduz lanera ez etortzea.
- c) Kooperatibak emandako funtzioak betetzerakoan edo funtzio horietaz baliatuz, Kooperatibari iruzur egitea edo desleialkeriaz zein konfiantza-gehiegikeriaz jokatzeta. Halaber, zerbitzuz kanpo Kooperatibarentzat iruzurrezkoak diren ekintzak burutzea.
- d) Sekretu profesionala haustea, baldin eta Kooperatibari edo hirugarrenei kalteak eragin bazaizkie.
- e) Zerbitzuarekin zerikusia duten dokumentu eta datuak faltsutu edo bahitzea.
- f) Ebaspena, lapurreta, bidegabeki jabetzea, iruzurra eta, oro har, Kooperatibarentzat kaltegarriak diren ekintza edo omisioak, eta Kooperatibari zerbitzuren bat ematerakoan egindakoak.
- g) Engainuzko edozein delituren ondoriozko kondena. Bere izaera berezia kontuan hartuta Kooperatibaren ustez delitua egin duenarenganako konfiantzan eraginik ez dutenak izango dira salbuespen bakarrak.
- h) Kooperatibaren zerbitzuren bat emateagatik edo eman izanagatik bertako bezeroengandik, zuzenean edo zeharka, ordainsariak, agintzariak, abantailak edo edozelako pribilegioak gestionatzea zein onartzea, baldin eta, kasuan kasuko ezaugarriak kontuan hartuta, pertsonen arteko harremanek berezkoak dituzten afektua eta esker ona erakusteko opari ez-diruzkoak ez badira.
- i) Kooperatibaren helburu soziala kontuan hartuta, zuzeneko konpetentzia diren jarduera edo lanak gauzatzea.

- j) Lehendakaritzak, Zuzendaritza Nagusiak edo horien ordezkariak baimenik eman gabe lantokiak jendearentzat ixtea, ezinbesteko kasuetan izan ezik.
- k) Barne-arrazoietan oinarritutako grebak sustatzea edo egitea.
- l) Lan-alorrean diziplinarik gabe jokatu edo mailaz goragokoen aginduak ez bete izanaren ondorioz, Kooperatibari edo lankideei kalte larriak eragitea. Halaber, hutsegite larriengatik ezarritako zigorrak ez betetzea.
- ll) Bezeroei kreditu eta arriskuak emateko dituzten ahalmen eta eskumenetan justifikaziorik gabeko gehiegikeria larriak egitea.
- m) Bazkideen eta kooperatibaren irudi edo izen onaren kontrako jardueretan nabarmen eta sarri parte hartzea.
- n) Arrazoi justifikaturik izan gabe, lana bertan behera uztea eta lanorduetan norbere lanak egiten jardutea, izaera larriz.
- ñ) Bazkideari emandako zereginak eta erantzukizunak behar bezala betetzeko oso oztopo larri diren ekintza edo omisioak.
- o) Mailaz goragokoek oso agintekeria larriak egitea.

19. artikulua. Zigorrak

A) HUTSEGITE SOZIALENGATIK

Bat. Hutsegite arinengatik

- Kontseilu Errektorearen idatzizko ohartarazpena.
- Lan-bazkideentzat ezarritako derrigorrezko ekarpen minimoaren 100eko 10erainoko diruzko zigorra.

Bi. Hutsegite larriengatik

- Idatzizko ohartarazpena. Kontseilu Errektoreak erabakitzen badu, jendeari ezagutaraziko zaio.
- Hurrengo bi hauteskundeetan zuzendari edo kontu-hartzaile karguetarako hautagai izateko ezintasuna.
- Entitateak ezarrita dituen finantza-zerbitzuak eta abar ezin erabili izatea gehienez urtebeterainoko epean. Dena den, egoera horrek ezin dio kalte konponezinik ekarri.

- Lan-bazkideentzat ezarritako derrigorrezko ekarpen minimoaren 100eko 50erainoko diruzko zigorra.

Hiru. Hutsegite oso larriengatik

- Eskubide sozial batzuk Kontseilu Errektoreak ezarriko duen epera arte kentzea. Dena den, epe hori hiru urtekoa izango da gehienez ere. Kooperatiben legediak aitortzen dituen eskubide etenezinak ezin izango dira zigor honetan sartu.
- Entitatearen zerbitzuak ez erabili ahal izatea, gehienez ere hiru urtez. Dena den, horrek ezin izango dio kalte konponezinik eragin.
- Lan-bazkideentzat ezarritako derrigorrezko ekarpen minimoaren 100eko 400erainoko diruzko zigorra.
- Lanetik kanporatzea.

Lau. Aurreko ataletan bazkideari eskubideak kentzearen inguruan adierazi diren zigorrak bazkideak betebeharr ekonomikoak bete ez dituenean edo jarduera kooperatibizatueta Estatu hauetan finkatu bezala parte hartzen ez duenean bakarrik ezarriko dira. Bazkideak bere egoera normaldu bezain laster bukatuko dira zigorrak.

B) LANEAN EGINDAKO HUTSEGITEENGATIK

Bost. Hutsegite arinengatik

- Ahozko ohartarazpena.
- Bi egunez, gehienez, lanik eta lan-aurrerakinik gabe uztea.

Sei. Hutsegite larriengatik

- Idatzizko ohartarazpena.
- Hamabi egunez, gehienez, lanik eta lan-aurrerakinik gabe uztea.
- Kategoriaz igotzeko gaitasunik gabe uztea, gehienez ere hiru urtez.
- Lan-indizea murriztea, gehienez ere hiru urtez. 2 hamarrenekoa izango da murrizketaren muga.

Zazpi. Hutsegite oso larriengatik

- Sei hilabetez, gehienez, lanik eta lan-aurrerakinik gabe uztea.
- Lanetik kanporatzea.

20. artikulua. Zigor-prozedurak

A) HUTSEGITE SOZIALENGATIK

Bat. Prozedurak

Hutsegite-espedienteetako dokumentu guztiak bikoizturik beteko dira, eta kopia bat bazkidearen espedientearen geratuko da artxibatuta.

Kontseilu Errektoreak egingo du karguen plegua hutsegite guztientzat, eta bazkide erruztatuari idatziz jakinaraziko dizkio zigorraren behin-behineko sailkapena eta zigor-proposamena. Bazkideak deskargua egin eta Kontseilu Errektoreari berari aurkeztu ahal izango dio, kasuan kasuko sailkapena eta zigorra finka ditzan.

Hutsegitea larria edo oso larria bada, bazkideak Kontseilu Errektorearen erabakiaren kontrako errekurtsua aurkeztu ahal izango du Errekurtsu Batzordean, erabakiaren jakinarazpena jaso eta hogeita hamar eguneko epean.

Bi. Epe orokorrak

a) Espedientea irekitzeko epeak

Ondorengoak izango dira hutsegitearen espedientea irekitzeko edo zigor-prozedurari hasiera emateko epeak:

- Hutsegite arinetan bi hilabete.
- Hutsegite larrietan lau hilabete.
- Hutsegite oso larrietan sei hilabete.

Hutsegitea egin den eguna izango da aipatutako epeen abiapuntua. Zigor-prozedurari hasiera ematen zaionean, eten egingo dira epeak, eta lau hilabetetan ez bada ebazpenik eman eta jakinarazi, aurrera jarraituko du berriro.

b) Hutsegitearen behin-behineko sailkapena eta zigor-proposamena jakinarazteko epea.

Epea hilabetekoa izango da kasu guztietan, eta Kontseilu Errektoreak hutsegite-espedientea irekitzea edo zigor-prozedura hastea erabaki duen eguna izango da epearen abiapuntua.

c) Deskargua egiteko epea

Bazkide erruztatuak Kontseilu Errektoreari deskargua egiteko aukera izango du, hilabeteko epean, eta hutsegite-espedientea ireki edo zigor-prozedura hasi dela jakinarazi zaion eguna izango da epearen abiapuntua.

d) Sailkapena eta zigorra finkatzeko epea

Kontseilu Errektoreak hartuko du sailkapenari eta zigorrari buruzko erabakia, eta hilabeteko epea izango du horretarako, bazkide erruztatuak deskargua egin duen egunetik aurrera edo, bestela, deskargua egiteko epea bukatzen denetik aurrera.

Hiru. Errekurtsok

Bazkideak aukera izango du Kontseilu Errektorearen erabakiaren kontra errekurtsua aurkezteko Errekurtsu Batzordean, erabakiaren jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean.

Errekurtsu Batzordeak bi hilabete izango ditu ebazpena emateko, baina aurretik, interesatuari entzun beharko dio.

Era berean, jakinarazpena jaso ondorengo hilabetean, bazkideak aukera izango du Kontseilu Errektoreak hartutako zigor-erabakiari edo, hala badagokio, Errekurtsu Batzordearen berrespenari aurka egiteko, 34. artikuluan adierazitako prozesu-bidearen arabera.

Lau. Zigorren exekutagarritasuna

Kanporaketetan izan ezik, zigorrak Kontseilu Errektorearen erabakia bazkideari jakinarazi zaionetik izango dira exekutagarriak. Kasuan kasuko hutsegiteari zein sailkapen eta zigor dagozkion adieraziko da jakinarazpenean.

Bost. Zigorrak indargabetzea

Kontseilu Errektoreak aukera izango du bete gabe dauden zigorraldiak edo iraganean egindako zigorren oharrak indargabetzeko interesatuaren eskaeraz, baldin eta iruditzen bazaio bazkideak bere jokabidea zuzendu duela. Kanporaketak izango dira salbuespen bakarrak.

B) LANEAN EGINDAKO HUTSEGITEENGATIK

Sei. Prozedura

Hutsegite-espedienteetako dokumentu guztiak bikoizturik beteko dira, eta kopia bat Kooperatibako artxiboan gordeko da, lan-bazkide bakoitzaren espedientearekin batera.

Zuzendari nagusiak egingo du karguen plegua, eta bazkide erruztatuari idatziz jakinaraziko dio zein diren hutsegitearen behin-behineko sailkapena eta zigor-proposamena. Bazkideak Kontseilu Sozialari egin ahal izango dio deskargua, kasuan kasuko sailkapena eta zigorra finka ditzan.

Bazkideak Kontseilu Sozialaren erabakiaren kontrako errekurtsua aurkeztu ahal izango dio Kontseilu Errektoreari, eta horren erabakiaren kontrako errekurtsua, era berean, Errekurtsu Batzordeari.

Zigor-proposamena bazkidea lanetik kanporatzea bada, 16. Artikuluan

zehaztutako prozedurari jarraitu beharko zaio.

Zazpi. Epe orokorrak

a) Espedienteari hasiera emateko epeak

Ondorengoak izango dira hutsegiteen espedientea irekitzeko edo zigor-prozedurari hasiera emateko epeak:

- Hutsegite arinetan bi hilabete
- Hutsegite larrietan lau
- Hutsegite oso larrietan sei

Hutsegitea egin den eguna izango da aipatutako epeen abiapuntua. Zigor-prozedurari hasiera ematen zaionean, eten egingo dira epeak, eta lau hilabetetan ez bada ebazpenik eman eta jakinarazi, aurrera jarraituko du berriro.

b) Kontseilu Sozialari deskargua egiteko epea

Bazkide erruztatuak hogeit hamar egun izango ditu Kontseilu Sozialari deskargua egiteko.

c) Kontseilu Sozialak erabakia hartzeko epea

Bazkide erruztatuak deskargua egin badu, Kontseilu Sozialak hogeit hamar eguneko epea izango du, deskargua aurkeztu dion egunetik aurrera, kasuan kasuko sailkapena eta zigorra finkatzeko.

d) Kontseilu Errektoreari errekurtsua aurkezteko epea

Bazkideak Kontseilu Sozialaren erabakiaren kontrako errekurtsua aurkeztu ahal izango dio Kontseilu Errektoreari, jakinarazpena jaso ondorengo zortzi egunetan.

e) Kontseilu Errektoreak erabakia hartzeko epea

Kontseilu Errektoreak hogeit hamar egun izango ditu aurkeztu dioten errekurtsuari buruzko erabakia hartzeko.

f) Errekurtsu Batzordeari errekurtsua aurkezteko epea

Kontseilu Errektorearen erabakia jakinarazi ondorengo hilabeteetan, erabaki horren kontrako errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Errekurtsu Batzordeari.

Zortzi. Zigorren exekutagarritasuna

Zigor guztiak Kontseilu Sozialari deskargua egiteko ezarri den epea bukatutakoan izango dira exekutagarriak, eta deskargua egiten bada, organo horrek hartutako erabakia jakinarazi den egunetik aurrera.

Bazkideak ez badio zigorrari aurka egiten, Kontseilu Errektoreak erabakitako

zigortzat hartuko da ondorio guztietarako.

Bederatzi. Zigorrek indargabetzea.

Kontseilu Errektoreak aukera izango du bete gabe dauden zigorraldiak edo iraganean egindako zigorren oharrak indargabetzeko interesatuaren eskaeraz, baldin eta iruditzen bazaio bazkideak bere jokabidea zuzendu duela. Kanporaketak izango dira salbuespen bakarrak.

21. artikulua. Bajen ondorio ekonomikoak

Bat. Bazkideak baja hartuz gero, kapital sozialari egindako ekarpenak itzultzeko eskatu ahal izango du berak edo bere eskubidedunek. Horretarako nahitaezkoa izango da Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea, bai eta gutxieneko kapital sozialak, baliabide propioek edo kaudimen-koefizienteak behar besteko estaldura izatea ere.

Bi. Bajaren unean, bazkideari egotzi beharreko galerak kenduko zaizkio ekarpenen zenbatekoari. Bazkideak konpentsatu edo ordaindu gabe dauzkan bajaren ekitaldi ekonomikoko galerak eta/edo aurreko ekitaldietakoak hartuko dira kontuan aipatutako kenketa egiteko.

Hiru. Bazkidearekin hitzartutako gutxieneko epea —asko jota bost urtekoa onarpen-egunetik aurrera— ez betetzearen ondoriozko arrazoirik gabeko bajetan, % 30eko murrizketa ere egin ahal izango zaio derrigorrezko ekarpenen likidazioaren emaitzari, aurreko ataletan adierazitako doikuntzak burutu ondoren.

Lau. Kontseilu Errektoreak finkatuko du ordainketa-epea, baina bost urtekoa izango da gehieneko muga, bajaren egunetik aurrera. Bazkidea hilez gero, heriotza gertatu eta gehenez ere urtebetera ordaindu beharko zaie eskubidedunei.

Ordaintzeke dauden zenbatekoak ez dira eguneratuko, eta diruaren legezko interesak ere kobratzeko eskubidea izango dute.

22. artikulua. Lan-bazkideen probaldia

Lan-bazkideek, probaldian daudela, bazkide diren aldetik dagozkien eskubide eta betebeharrak izango dituzte, ondorengo hauek izan ezik:

- a) Bai Kooperatibak, Kontseilu Errektorearen erabakiz, bai probaldian dagoen bazkideak elkarren arteko harremanak etetea erabaki ahal izango dute libreki.
- b) Ezin izango dituzte Elkartearen organoetako karguetarako hautatu.
- c) Ez dira kapital sozialari ekarpena egitera eta sarrera-kuota ordaintzera behartuta egongo, ezta ahaldunduta ere.

- d) Probaldian Kooperatibak izaten dituen galerek ez dute beraiengan eraginik izango, eta ez dute itzulkin kooperatiboa kobratzeko eskubiderik izango.

23. artikulua. Gizarte Segurantzaren erregimena

Kooperatibak, bere bazkide langileek Gizarte Segurantzaren onurak jaso ditzaten, norberaren konturako langile gisa Langile Autonomoen Erregimen Berezia aukeratu du. Kooperatibak Gizarte Segurantzaren aurrean obligaziodun egoera juridikoa hartuko du eta kuotak ordaintzeko erantzukizun zuzena eta lehena izango du.

Halaber, Lagun-Aro, BGA Eri egin beharreko ekarpenak ordaintzeko betebeharra bere gain hartzen du Kooperatibak, bere bazkide langileen mesederako, Lagun-Aro, BGA Eren Estatutuek eta Prestazioen Erregalamentuak diotenaren arabera, bertan aurreikusitako prestazioak finantzatzeko asmoz eta, bereziki, ezinduentzako laguntza, osasun- laguntza, aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, enplegu-laguntza, heriotzagatiko laguntza, erretiroa, alarguntasuna eta ezintasun iraunkorra.

24. artikulua. Lan-bazkideen barne-antolamendu funtzionala

Ondorengo irizpide orokorrak izango dira nagusi lan-bazkideen barne-antolamenduan:

- a) Kontseilu Errektoreak onartuko ditu Kooperatibako egituraren organigrama nagusiak. Horretarako, lanpostu bakoitzaren zereginen eta harremanen deskribapena egin beharko da aurretiaz.
- b) Kontseilu Errektoreak izendatuko du zuzendari nagusia. Departamentuetako zuzendariak eta goi-mailako exekutiboak ere izendatuko ditu, zuzendari nagusiaren proposamenez. Helburu soziala betetzeko behar diren gainerako buruak edo exekutiboak zuzendari nagusiak izendatuko ditu.

Jokabide-ildo horretan ahalik eta autonomiarik handiena erabiliko da, betiere estatutu eta legeetan finkatutako mugak gainditu gabe. Lan-bazkideek mailaz goragokoen kontrako errekursoak jartzeko aukera izango dute, eta Kontseilu Errektorearengana joko dute, bide exekutiboa agortu ondoren. Dena den, horrek ez du esan nahi mailaz goragokoen aginduak betetzetik salbuetsita egongo direnik.

- c) Lan-bazkide bakoitzari gehienez ere ordainduko zaizkion urteko kontsumo gordinaren aurrerakinak ez dira handiagoak izango Mondragón Corporación Cooperativak une bakoitzean ezarrita dituen gehienezko lan-indizeari dagokion zenbatekoa baino.

25. artikulua. Bazkide laguntzaileak

Bat. Bazkide izateari arrazoi justifikaturen baten ondorioz utzi dioten lan-

bazkideak izan daitezke bazkide laguntzaile, eta lan-bazkide izandako bazkide laguntzailearen alarguna ere bai, hura hilez gero.

Bi. Bazkide laguntzaile izateko eskaera idatziz egingo zaio Kontseilu Errektoreari, eta organo horrek ezezko erantzuna emanaz gero, errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Errekurtso Batzordeari, erabakiaren jakinarazpena jaso ondorengo hogeitun egunetan. Ezin izango da, ordea, Errekurtso Batzordearen erabakiaren kontrako errekurtsorik jarri.

Hiru. Bazkide laguntzaileak Kooperatiba bere borondatez edonoiz uzteko aukera izango du, uzteko erabakia Kontseilu Errektoreari idatziz jakinarazi ondoren.

Kooperatibak, Estatutu hauetan zehaztutako zigor-prozeduraren arabera, bazkide laguntzailea kanporatzeko eskubidea izango du, hutsegite oso larriak egin baditu.

Lau. Bazkide laguntzaile bakoitzak boto-eskubidea izango du, Estatutuen 30. artikulua agindutakoaren arabera. Hala ere, bazkide laguntzaile guztien baturak ezin du boto guztien 100eko 30 gainditu.

Bost. Bazkide laguntzaileek egindako ekarpenek ezin izango dituzte, inolaz ere, kooperatiben legediak ezarritako mugak gainditu.

26. artikulua. Organo sozialak eta Zuzendaritza

Bat. Hauek dira beharrezko organo sozialak:

- a) Batzar Nagusia
- b) Kontseilu Errektorea

Bi. Kontseilu Errektoreak zuzendari nagusia eta zuzendariondoko nagusia izendatuko ditu, ohiko enpresa-trafikoari dagozkion ahalmenak erabiliz.

Hiru. Zuzendariondoko nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak laguntza eta aholkularitza emango dizkiote zuzendari nagusiarri. Kooperatibako goi-exekutiboak izango dira Zuzendaritza Batzordeko kide; zuzendari nagusia, berriz, lehendakari.

Zuzendaritza Batzordeak zuzendaritza-taldearen zereginak koordinatu eta Kontseilu Errektoreari aholkularitza emango dio. Kooperatibaren enpresa-garapena aurreikustea, antolatzea eta sustatzea, eta bestalde, enpresa- gestioa hobetzea izango ditu zeregin nagusiak.

Lau. Beste organo berezi bat ere eratuko da: Kontseilu Soziala. Lan-bazkideek Kooperatiban etengabe parte hartzeaz arduratuko da, Organo Sozialei eta Zuzendaritzari alor horretan dagozkien zereginei kalterik eragin gabe. Kontseilu Soziala, gainera, lan-bazkideen ordezkaria izango da barne-erregimeneko organoetan, eta bazkideen nahien bozeramale ere bai.

Kontseilu Errektorearen aholkulari izango da, batik bat gai instituzionaletan, eta Zuzendaritza Orokorraren aholkulari ere bai, lan-erregimenari lotutako gaitan. Horrek ez dio, ordea, kalterik eragingo Kontseilu Sozialak araudi-ekimenetarako izango duen gaitasunari eta Kontseilu Sozialak bere esku utziko dituen erabaki-ahalmenei.

Bost. Kooperatibak eraginkortasun eta garapenerako egoki deritzen organoak sortzeko eskubidea izango du. Zehazki, bere helburu sozio-enpresariala betetzeko, Eragiketa Batzorde bat edo hainbat sortu ahal izango ditu, eragiketa aktiboak bideratu edo arriskuak har ditzaten. Halaber, Errekurtso Batzordea eratu eta kontu-hartzaileak aukeratuko dira.

27. artikulua. Batzar Nagusia

Bat. Batzar Nagusian bazkideak bilduko dira, legearen edo estatutuen arabera beraien eskumenekoak diren gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko. Batzar Nagusiak hartutako erabakiak lotesleak izango dira Kooperatibako bazkide guztientzat.

Bi. Batzar Nagusiak finkatuko du Kooperatibaren politika orokorra eta Kooperatibarentzat interesgarria den edozein alderdi aztertu ahal izango du, betiere kasuan kasuko aztergaia gai-zerrendan sartuta baldin badago. Dena den, nahitaez

bete beharreko erabakiak hartzeko, ezinbestekoa izango da Kooperatibei buruzko Legearen arabera aztergaia beste organo sozialen baten eskumen ez izatea.

Hiru. Batzar Nagusiak baino ez du izango gai hauek aztertzeko eta kasuan kasuko erabakiak hartzeko eskumena:

- a) Gestio soziala behatzea, urteko kontuak eta gestio-txostena onartzea eta mozkin eskuragarriak nola erabili edo galerak nola egotzi erabakitzea.
- b) Kontseilu Errektoreko kideak, ikuskatzaileak, kontu-hartzaileak, likidatzaileak eta Errekurtso Batzordeko kideak izendatzea eta kargugabetzea. Halaber, kontseilarien eta likidatzaileen ordainsarietarako zenbatekoak finkatzea.
- c) Estatutuak aldatzea eta Kooperatibaren Barne Araudia onartzea edo, hala badagokio, aldatzea.
- d) Derrigorrezko ekarpen berriak ezartzea, borondatezko ekarpenak onartzea, kapital sozialari egindako ekarpenen balioa eguneratzea, bazkide berriek ordaindu beharreko ekarpenen zenbatekoak zehaztea, sarrera-kuotak edo aldizkakoak finkatzea eta kapital sozialari egindako ekarpenen ondorioz zenbateko interes-tasa ordainduko den erabakitzea.
- e) Obligazioak, partaidetza-tituluak, partaidetza bereziak eta bestelako finantzaketa-bideak jaulkitzea, balio negoziagarrien bidez.
- f) Sozietatea fusionatu, banatu, eraldatu edo deuseztatzeko erabakia hartzea.
- g) Kooperatibaren egitura ekonomikoan, sozialean, antolamenduzkoan edo funtzionalean funtsezko aldaketak eragingo dituzten erabakiak hartzea. Ildo horretan, errekurtsu propioen, Kooperatibak ekitaldian lortutako sarreren edo lan-bazkideen enplegu-mailaren % 25ean, gutxienez, eragina izango duten aldaketak hartuko dira funtsezkotzat.
- h) Bigarren mailako Kooperatibak eta Kooperatiba Taldeak sortzeko edo jadanik sortuta daudenetan sartzeko, ekonomia-lankidetzarako dauden beste aukera batzuetan legeak ezarritako suposamenduetan parte hartzeko eta ordezkaritza-entitateekin bat egiteko edo horrelakoetatik banatzeko erabakia hartzea.
- i) Erantzukizuneko ekintza sozialak gauzatzea Kontseilu Errektoreko kideen, kontu-hartzaileen eta likidatzaileen kontra.
- j) Lege edo estatutuetako arauen ondoriozkoak.

Lau. Lege edo estatutuetako arauen arabera Batzar Nagusiak aginduzko erabakia hartu behar duen ekintzetan, ez da Batzarraren eskumena beste inoren esku uzterik egongo. Legearen arabera kooperatiba-talderen baten esku uzteko modukoak

diren eskumenak izango dira salbuespen bakarrak.

28. artikulua. Ohiko eta aparteko Batzar Nagusiak. Deialdiak

Bat. Batzar Nagusiak ohikoak eta apartekoak izan daitezke.

Bi. Honako helburu nagusiak izango ditu Batzar Nagusiak: gestio soziala aztertzea, egoki baderitzote urteko kontuak onartzea, mozkinak edo galerak nola egotzi erabakitzea eta Kooperatibaren politika orokorra finkatzea. Ohiko Batzarraren gai-zerrendan, bere helburu nagusiarekin zerikusia dutenak ez ezik, Kooperatibako beste edozein gai ere sartzeko aukera egongo da.

Hiru. Gainerako Batzar guztiak apartekoak izango dira.

Lau. Kontseilu Errektoreak egin beharko du Ohiko Batzar Nagusirako deia, ekitaldi ekonomikoa amaitu ondorengo sei hilabeteetan.

Bost. Kontseilu Errektorearen ekimenez egingo da Aparteko Batzar Nagusirako deia, edo bestela, 500 bazkidek, elkartearen zentsuko 100eko 10ek edo gutxienez Kontseilu Sozialeko kideen bi herenak eskatzen badute.

Batzarrerako deia egiteko eskaerarekin batera, gai-zerrenda adierazi beharko da. Kontseilu Errektoreak eskaerari hogeita hamar egunetan erantzuten ez badio, agintari judizialarengana jo eta deialdia egiteko agindua eman dezala eskatzeko eskubidea izango dute bilera-eskatzaileek.

Sei. Batzar Nagusirako deiaren iragarkia Kooperatibaren helbide sozialean eta zentro guztietan emango da ezagutzera. Gainera, Kooperatibaren esparruan oso hedatuta dauden bi egunkaritan ere argitaratuko da, Batzarra egin baino hamabost lanegun lehenago, gutxienez.

Kooperatibaren helbide sozialean eta zentroetan, Batzarra egin baino, gutxienez, hamabost egun lehenago argitaratuko da deialdia. Iragarkiak edo jakinarazpenak, gehienez ere, bi hilabete lehenago egingo dira.

Zazpi. Deialdietan datu hauek adierazi beharko dira gutxienez: data, lehen edo bigarren deialdia den eta bileraren ordua eta lekua. Halaber, gai-zerrenda ere zehatz-mehatz eta argi adieraziko da.

Lehen eta bigarren deialdiaren artean ordu erdiko tarteak utzi beharko da.

Zortzi. Kontseilu Errektoreak finkatuko du gai-zerrenda. Dena den, zerrendan sartuko dira kontu-hartzaileek Kontseilu Errektoreari idatziz proposatutako gaiak, bazkideen 100eko 5ek edo 200 bazkidek adierazitakoak edo Kontseilu Sozialak,

gutxienez kideen bi herenen erabakiz, eskatutakoak ere. Edonoz aurkeztu ahal izango dira proposamenak, baina deialdia ezagutzera eman ondorengo zortzi egunetan egin direnak bakarrik aztertuko dira lehen Batzarrean. Kontseilu Errektoreak, hala badagokio, gai-zerrenda berria Batzarra egin baino, gutxienez, lau egun lehenago argitaratuko du, deialdietarako ezarrita dagoen eran.

Bederatzi. Helbide sozialaren edo beste lantokiak dauden udaletan egingo dira Batzarrak.

29. artikulua. Batzarraren funtzionamendua

Bat. Bazkideen erdia bertan edo ordezkatura badago, Batzar Nagusia lehen deialdian eratuko da; gutxienez bazkideen 100eko 5 edo 100 bazkide bertaratu badira, berriz, bigarren deialdian.

Bi. Lehendakariak zuzenduko du Batzar Nagusia; lehendakaria ez badago, Kontseilu Errektoreko lehendakariordeak, eta hori ere ez badago, Batzar Nagusiak aukeratutako kide batek. Kontseilu Errektoreko idazkaria arituko da idazkari-lanetan, edo bestela, estatutuen arabera dagokion ordezkaria. Ordezkaria ere bertan ez badago, Batzarrak aukeratuko du idazkaria.

Gai-zerrendan, aurreko paragrafoan zehaztutakoen arabera Batzarrean lehendakari edo idazkari izango direnengan eragin zuzena duten gaiak badaude, Batzarrak erabakiko du nortzuek beteko dituzten zeregin horiek.

Dena den, lehendakariaren lana izango da eztabaidak zuzentzea, Batzarra behar bezala garatzen dela bermatzea eta Legeak eskatutako betebeharrak formalak betearaztea.

Hiru. Organo sozialetako kideak hautatzeko edo kargugabetzeko eta kide horien kontrako erantzukizun-ekintzak gauzatzeko edo aipatutako ekintzari amore eman zein uko egiteko erabakia hartzeko, bozketa sekretua egingo da. Gai-zerrendako edozein punturi buruzko erabakia ere bozketa sekretu bidez hartuko da, Batzarrera joandako bazkideen 100eko 20k eskatuz gero.

Lau. Gai-zerrendaren arabera kargu sozialak aukeratu behar badira, bazkideek Batzarraren lehen ordu erdian eman ahal izango dute botoa. Horrelakoetan, hauteskunde-mahaia eratuko da Kontseilu Errektoreko kide batekin eta bazkide batekin. Bazkidea Batzar Nagusiak aukeratutako bazkideetako bat izango da.

Bost. Kooperatibak egoki funtzionatzeko bazkide ez den norbait ere Batzar Nagusian egotea komeni bada, parte hartzeko deia egingo dio Kontseilu Errektoreak. Bazkide ez direnek hitza izango dute, baina ez botoa emateko eskubidea. Dena den, Batzarrean daudenen erdiek kontrako botoa ematen badute, ez dute Batzarrean parte hartzerik izango.

30. artikulua. Boto-eskubidea

Lehena. Bazkide bakoitzak boto bat izango du. Gainera, bazkideak bere bazkide motari dagokion gutxieneko nahitaezko kapital-ekarpena baino ekarpen handiagoa egin badu, nahitaezko ekarpenik handiena eskatzen zaion bazkide motaren gutxieneko nahitaezko ekarpenaren zenbatekotik gora jarritako 2.000 €-ko beste boto bat izango du.

Edozein modutan ere, bazkide bakoitzak boto guztien % 20 (pertsona juridikoen kasuan) eta % 2,5 (pertsona fisikoen kasuan) izango du gehienez.

Bi. Ondorengo egoera hauetako batean dauden bazkideek ezin izango dute botorik eman:

- a) Zigor baten ondorioz, botoa emateko eskubiderik gabe geratu direnek.
- b) Bazkide erruztatuek, beren diziiplina-espeditari buruzko errekurtsoa ezagutzera eman ondoren.
- c) Kontseilu Errektoreko kideek, baldin eta bozketaren bidez beroien kontrako erantzukizun-ekintzak gauzatzeko edo amore eman edo uko egiteko erabakia hartu behar bada.
- d) Bazkideek, baldin eta Kontseilu Errektoreko kideren batekin, kontuhartzaileraren batekin, zuzendariarekin edo bigarren mailara arteko odol edo ezkon-senideren batekin obligazioa hartzeko Batzar Nagusiaren baimena behar bada. Bazkide izateak berezkoak dituen Kooperatibarekiko harremanak izango dira salbuespen bakarrak.
- e) Kapital Sozialerako nahitaezko gutxieneko ekarpena egin ez duten bazkideek.

Hiru. Batzar Nagusirako deia egin baino lehenago, zenbat boto sozial dauden eta bazkide bakoitzari zenbat dagozkion zehaztu beharko du Kontseilu Errektoreak. Horretarako, aurreko ekitaldi ekonomikoan bazkideek Kapital Sozialari egindako ekarpenak hartuko ditu kontuan.

31. artikulua. Ordezkaritza-eskubidea

Bat. Bazkideek Batzar Nagusian parte hartzeko eta botoa emateko beste norbait aukeratzeko eskubidea izango dute, artikulua honetan zehaztutakoekin bat.

Bi. Batzar Nagusiak, gai-zerrenda aztertzen hasi aurretik, bertaratutakoen zerrenda osatu eta bereizketa hau egingo du: langile laguntzaileak, lan- bazkideak eta gainerako bazkideak. Talde bakoitzean nor bertaratu den eta ordezkaria nork bidali duen ere adieraziko da. Kontu-hartzaileek erabakiko dute ordezkariak egokiak diren.

Hiru. Ondorengoak ezin izango dira beste bazkide baten ordezkari izan:

- a) Botoa emateko eskubiderik gabe geratu direnak.
- b) Bozketan interesen bat dutenak.
- c) Kargu sozialak dituztenak.

Lau. Ordezkaritza-agiria ezeztagarria, izenduna eta idatzizkoa izango da beti, eta gai-zerrenda osoa eta botoa emateko argibideak eskatzeko atala ere izan beharko ditu. Deialdia argitaratu ondoren eta Batzarra egin aurretik gauzatuko dira. Gainera, ordezkariari botoa emateko argibiderik eman ez bazaio, egokiena iruditzen zaiona egingo du bozketa bakoitzean.

Bost. Bazkide bakoitzak ezin izango ditu, bereaz gain, beste boto-ordezkaritza bi baino gehiago izan. Bestalde, ordezkapenen bidez jasotako botoekin eta dagozkionekin ezin izango ditu kreditu-kooperatibei buruzko legediak finkatuta dituen boto-mugak gainditu.

32. artikulua. Erabakiak hartzea

Bat. Hauteskunderakoak ez diren erabakiak hartzeko, baliodun botoen erdia baino gehiago behar izango da.

Bi. Bertaratuta zein ordezkariak dauden boto guztien bi hereneko gehiengo indartua behar izango da indarrean den legeak ezarritako erabakiak zein honako hauek hartzeko:

1. Aktiboa eta pasiboa eraldatu, batu edo banatu, bereizi, desegin, berraktibatu edo osorik lagatzeko, beste kreditu-entitate batzuk erosteko eta, oro har, emaitza berbera izango lukeen egiturazko edozein aldaketa edo eragiketa gauzatzeko.
2. Kooperatiba Talde batean, Babes Sistema Instituzional batean edo kooperatiba ez den beste banku-talde batean sartzeko edo baja emateko.
3. Kooperatibaren izaera juridikoa aldatuko duen edozein erabaki hartzeko.
4. Helburu eta helbide soziala eta/edo azpiegoitza operatiboa kokatuta dauden udalerritik kanpoko beste leku batera aldatzea, honako kasu honetan izan ezik: aldaketa horren ondorioz, helbide sozialaren udalerrira azpiegoitza operatiboarena izatea eta alderantziz. Kasu horretan aski izango litzateke legez eskatutako gehiengoa, erabakia hartzeko.
5. Estatutuetakoko beste edozein aldaketa egiteko.

33. artikulua. Batzarraren akta

Bat. Batzar Nagusiko idazkariak egingo du bilkuraren akta, eta datu hauek adierazi beharko ditu: bileraren lekua, eguna eta ordua, gai-zerrenda, zenbat bazkide bertaratu diren, lehen edo bigarren deialdian eratu den, aztertu diren gaien laburpena, aktan jasotzeko eskatu dizkioten parte- hartzeak, zein erabaki hartu diren eta zein izan diren bozketen emaitzak.

Bi. Bilkuraren akta Batzar Nagusiak berak onetsi ahal izango du, amaitu eta gero, edo bestela, Batzar Nagusiko lehendakariak eta Batzarrean bertan aukeratutako hiru bazkidek, hamabost egunen buruan.

Batzarreko idazkariak Batzar Nagusiaren Akta Liburuan idatziko ditu akta guztiak.

Hiru. Batzar Nagusiaren erabakiak hartu diren unetik aurrera hasiko dira eragina izaten.

Lau. Erabakiak erregistragarriak direnean, Kontseilu Errektorearen erantzukizuna izango da Kooperatiben Erregistrora eramatea, bertan jaso ditzaten. Hogeita hamar egun izango ditu horretarako, akta onartu denetik aurrera.

34. artikulua. Batzar Nagusiaren erabakiei aurka egitea

Bat. Batzar Nagusiaren erabakiei ondorengo kasuetan egin ahal izango zaie kontra: Legearen edo Estatutuen kontrakoak direnean eta bazkide batek edo hainbatek onurak lortzeko Kooperatibaren interesei kalteak eragiten zaizkienean.

Indargabetutako edo balioudun beste batez ordezkaturako erabaki sozialei ezin izango zaie kontra egin.

Bi. Legearen kontrako erabakiek ez dute baliorik izango. Aurreko paragrafoan adierazi diren gainerako erabakiak baliogabetu egin ahal izango dira.

Hiru. Baliorik gabeko erabakiei aurka egiteko ekintzak urtebetera iraungiko dira. Arau horrek ez ditu barne hartuko arrazoia edo edukia dela-eta ordena publikoaren kontrakoak diren erabakiak.

Berrogei egunera iraungiko da erabaki baliogabegarriei kontra egiteko epea.

Lau. Bazkide guztiek, Kontseilu Errektoreko kideek, kontu-hartzaileek, Errekurtso Batzordekoek eta bidezko interesa frogatu duten hirugarrenek izango dute baliorik gabeko erabakiei aurka egiteko legitimotasuna.

Ondorengoek izango dute erabaki baliogabegarriei kontra egiteko legitimotasuna: batetik, Batzarrean egondako bazkideek, baldin eta aktaren edo bilkuraren ondorengo 48 orduetan egindako agiri fede-emailearen bidez erabakiaren kontra daudela jakinarazi badute, Batzarrean egon ez direnek, botoa emateko eskubidea bidegabeki kendu zaienek, Kontseilu Errektoreko kideek eta kontu-hartzaileek.

Bost. Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Errege Lege Dekretuak finkatutako prozesu-arauak beteko dira gai honetan.

35. artikulua. Kontseilu Errektorea

Bat. Kontseilu Errektorea kide anitzeko organoa da, eta goi-mailako gestioa gauzatzea, zuzendariak gainbegiratzea eta Kooperatiba ordezkatzeari, besteak beste, bere zereginak. Legearekin, Estatutuekin eta Batzar Nagusiak zehaztutako politika orokorrarekin bat jotzeko du.

Legeak eta Estatutuek beste organo sozial batzuei ematen ez dizkieten ahalmenak Kontseilu Errektorearen esku egongo dira.

Bi. Ahalmen zehatz hauek izango ditu Kontseilu Errektoreak:

- a) Bazkideak onartzeari eta kargugabetzeari buruzko erabakiak hartzea, Estatutu hauetan aurreikusitakoei jarraiki.
- b) Kooperatiba erantzukizun osoz ordezkatzeari edonolako ekintza eta kontratuetan.
- c) Zuzendari nagusia, Departamentuko zuzendariak eta administratzaileak izendatzea eta banatzea, eta beraien ahalmenak, betebeharrak eta ordainsariak finkatzea.
- d) Langileak kontratatzea, plantillak osatzea eta betebeharrak, eskumen, fidantza, aurrerakin eta gainerako ordainsariak zehaztea.
- e) Kooperatibaren jarduna antolatu, zuzendu eta ikuskatzea, eta Batzar Nagusiari Kooperatibaren Barne Araudia proposatzea.
- f) Helburu soziala betetzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren ekintza eta kontratuak burutzea, eta Estatutu hauetan Kooperatibari baimentzen zaizkion negozio eta eragiketa guztiei buruzko erabakiak hartzea. Aipatutako ekintza eta kontratuek honakoak ere hartuko dituzte barne: ondasun higiezinak erostea eta besterentzea, eskubide errealak eratzeari, baita hipotekazkoak direnak ere, eta errentamenduari dagokion berezia.
- g) Kooperatibarentzat komenigarriak izan daitezkeen kreditu eta mailegu-eragiketei buruzko erabakiak hartzea, betiere Batzar Nagusiaren eskubidea ez bada.
- h) Entitate publiko eta pribatuen aurrean bermeak ematea eta eskubidez onartutako titulu, zor publiko eta balore higigarri eta higiezinak erostea, saltzea, izenpetzea eta gordetzea. Gainera, egoki irizten dion moduan eragin ahal izango die.

- i) Ekarpenak izenpetzeko eta bonuak eta obligazioak jaulkitzeko zer behar den erabakitzea, Batzar Nagusiak erabakitakoari jarraiki.
- j) Fondo erabilgarriak eta Erreserba, Hezkuntza eta Sustapen Fondoak zehazki nola inbertitu erabakitzea, betiere Batzar Nagusiaren erabakiei men eginez, aurrekontuak osatzea, gastuak baimentzea eta Kooperatibako ahalduak eta ordezkariak izendatzea. Azken horiei egoki deritzeten ahalmenak emango dizkiete.
- k) Urteko Ohiko Batzar Nagusiari Galera eta Irabazien Kontua, Balantzea eta Kontseilu Errektoreak ekitaldi sozialean egindako gestioari buruzko azalpen-txostena aurkeztea, eta Mozkin Garbiak nola banatu proposatzea.
- l) Ohiko eta Aparteko Batzar Nagusietarako deiak egitea eta Batzar horietan hartutako erabakiak betetzea.
- m) Epaitegi eta Auzitegi arrunt eta berezien, Estatuaren bulego, agintaritza, korporazio eta erakundeen, Lurralde Administrazio Autonomoen, Probintziaren eta Udalerriaren aurrean, Kooperatibari dagozkion eskubide eta ekintzen erabilerari buruz egoki deritzon erabakiak hartzea. Era berean, ohiko eta aparteko errekurtsoen inguruko erabakiak ere hartu eta Kooperatiba ordezkatu eta defendatuko duten ordezkariak, prokuradoreak edo letratuak izendatuko ditu. Bide egokiari jarraituz, behar dituzten ahalmenak emango dizkie, hauek guztiak ere egin ahal izan ditzaten: adiskidetze, espediente, auzi, erreklamazio, errekurtsu eta edonolako ekintzetan eta edonolako prozedura-egoeretan bat etorri edo amore ematea, horren etendura eskatzea eta beharrezkoa izango den beste edozer, baita judizialki zabaltasun osoz amore ematea ere.
- n) Partikularren eta bulego publikoen fondo eta ondasun sozialak erabili, eskatu, eskuratu eta kobratzea, Kutxa Orokorreko gordailuak eratzea eta erretiratzea eta, interes sozialei komeni zaien lekuetan, diruz, kredituz edo balorez osatutako kontu korronteak irekitzea, kontu horietatik dirua edo baloreak ateratzea eta, oro har, entitate nazional eta atzerriarrekin, baita Espainiako Bankuarekin ere, orotariko banku-eragiketak burutzea, korrespontsalen esku dauden Kooperatibarenak erabiltzea eta truke-letrak igorri, endosatu, bermatu, onartu, ordaindu eta negoziatzea.
- o) Norbaitzuei eginkizun jakin batzuk gauzatzeko edo negozio sozialaren adar jakin batzuk zuzentzeko boterea ematea.
- p) Estatutu hauek ulertzerakoan sor daitezkeen zalantzak argitzea eta omisioak konpontzea, eta gero, Lehen Batzar Nagusian horien berri ematea.
- q) Estatutu hauetan bereziki adierazitakoak.

Hiru. Kontseilu Errektorearen ahalmenak ezagutzera ematea izan da aurreko ataleko zerrendaren xede bakarra. Beraz, zerrenda horrek ez ditu Kontseiluaren ahalmenak inola ere mugatuko Legeak Kooperatibako beste organo batzuen esku bereziki uzten ez dituen alderdietan.

36. artikulua. Kontseilu Errektoreko kideak

Bat. Entitateako Kontseilu Errektoreak, gutxienez, 12 kide eta, gehienez, 13 kide titular izango ditu. Azken kide hori Kooperatibako lankide bat izango da, hala dagokionean eta legeak hala agintzen badio Kooperatibari. Langile horrek kontratu finkoa izango du eta ezin da beste entitate bateko enplegatua izan. Kontseilu Errektoreko gainerako kideen agintaldi eta erregimen berdinak izango ditu eta kooperatiben inguruko legediak aurreikusten duen bezala hautatu eta kargugabetuko da. Kontseilu Errektoreko kideekin batera ordezkotza kideak ere hautatuko dira, eta haien eginkizuna titularrak ordezkotza izango da, horien kargua behin betiko hutsik geratuz gero, Estatutuen arabera gelditzen den agintaldi osorako.

Lau kide titular eta bi ordezkotza lan-bazkideen artean aukeratuko dituzte. Kontseilu Errektoreko 8 kide titularrak eta 4 ordezkotza beste bazkideen artean hautatuko dituzte.

Bi. 37. artikuluan zehaztutako debekurik ez duten bazkideak baino ezin izango dira aukeratu Kontseilu Errektoreko kide izateko. Kontseiluko kideren bat pertsona juridikoa bada, pertsona fisiko bat aukeratu beharko du karguari dagozkion funtzioak bete ditzan.

Hiru. Batzar Nagusiak aukeratuko ditu, bozketa sekretuz, kide titularrak eta ordezkotza, eta boto gehien lortu dituztenak izango dira Kontseiluko kide.

Lau. Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkaria ere aukeratuko dira. Kargu horiek Kontseilu Errektorerako hautatutakoek aukeratuko dituzte euren artean.

Bost. Kontseilu Errektorekoek lau urte emango dituzte karguetan, baina 65 urte betez gero, utzi egin beharko dute Kontseilua. Bi urtetik behin kide erdiak berrituko dira. Lehen berrikuntzan, zozketaz erabakiko da zein kidek utziko dituzten karguak.

Sei. Kontseiluko kideek karguei uko egiteko eskubidea izango dute. Norbaitek uko egin duelako, Kontseilu Errektorea balioduna izateko adina kide ez badaude, Batzar Nagusirako deia egingo dute kideek eta beren zereginetan jarraitu beharko dute Batzarra bildu eta hautatuek kargua onartu arte.

Zazpi. Kontseilu Errektoreko kideak edonoiz kargugabetzeko aukera egongo da, Batzar Nagusiak erabakitzen badu, legeak ezarritako gehiengoaren bidez.

Zortzi. Lehendakariak aldi batez bertan egoterik ez badu, lehendakariordeak ordezkotza du. Eta idazkaria ez dagoen aldietan, berriz, Kontseiluko kiderik gazteenak egingo ditu haren lanak.

Bederatzi. Kontseilu Errektoreak Ikuskaritza Batzordea izendatuko du bere kideen artean. Batzordeak hiru kontseilari izango ditu, eta gehiengo kontseilari ez-exekutiboek osatuko dute. Batzordeko lehendakaria kontseilari ez-exekutiboaren artean aukeratuko da eta lau urtetik behin ordeztuko dute. Kargua utzi eta urtebeteko epea pasatutakoan, berriro aukeratu ahal izango dute.

Ikuskaritza Batzordeak ondorengo eskumenak izango ditu gutxienez:

- a) Bazkideek Batzordeari bere eskumeneko alorren inguruan planteatutako gaiak Batzar Nagusian ezagutzera ematea.
- b) Kontseilu Errektoreari kanpoko kontu-ikuskaritza izendatzeko, izendapena luzatzeko edo zeregin horretatik kentzeko proposamena egitea, gero Batzar Nagusiak erabakia har dezan.
- c) Barne-ikuskaritzako zerbitzuak gainbegiratzea.
- d) Sozietatearen finantza-informazioarako prozesua eta barne- kontrolerako sistemak ezagutzea.
- e) Kanpo-ikuskariekin harremanetan egotea haien independentzia arriskuan jarri dezaketen alderdiei eta kontu-ikuskaritza garatzeko prozesuari lotutako bestelakoei buruzko informazioa jasotzeko, eta halaber, kontu-ikuskaritzaren legedian eta ikuskaritzako arau teknikoetan aurreikusitako argibideak lortzeko. Nolanahi ere, Entitatearekiko edo horri lotutako beste entitate batzuekiko independentzia egiaztatzen duen idatzizko agiria jaso behar du urtean behin kontu-ikuskarieganetik, baita entitate horiei emandako mota guztietako zerbitzu osagarriari buruzko informazioa ere, ikuskaritzaren gaineko araudiak ezarritakoaren arabera.
- f) Urtean behin, kontu-ikuskaritzaren txostena egin aurretik, kontu-ikuskariekin edo ikuskaritza-sozietateen independentziari buruzko iritzia azalduko duen txostena egitea. Txosten horretan, edonola ere, aurreko paragrafoan aipatu den zerbitzu osagarriari buruzko iritzia jaso beharko da.

Ikuskaritza Batzordea egoki deritzon bakoitzean bilduko da, lehendakariak deituta, bere ekimenez edo Batzordeko edozein kidek eskatuta. Bileretara kideek joan beharko dute, eta ez da egongo ordezkori norbait bidaltzeko aukerarik. Batzordea baliozko erabakia garatzeko, beharrezkoa da kideen erdia baino gehiago bertaratzea. Batzordeko kideek boto bana izango dute eta erabakiak emandako botoen gehiengo soilaren bidez hartuko dira. Gainerako alorretan Kontseilu Errektorearentzat ezarritako funtzionamendu-arauak erabiliko dira analogiaz.

37. artikulua. Ezintasunak eta bateraezintasunak

Bat. Ondorengo hauek ez dira Kontseilu Errektoreko kide izango:

- a) Kooperatibaren jarduerekin zerikusia duten funtzioak dituzten Administrazio Publikoetako goi-karguak eta gainerako langileak, betiere ez badira, hain zuzen, lan egiten duten Erakunde Publikoaren ordezkariak.
- b) Batzar Nagusiaren baimenik gabe Kooperatibarekiko lehiakorrak edo osagarriak diren jarduerak eurentzat edo beste batzuentzat gauzatzen dituztenak.
- c) Adinez txikiak eta 65 urtetik gorakoak.
- d) Kitatu gabeko porrotak eta zorrak dituztenak, legeak gaitasunik gabe utzi dituenak, kargu publikoetarako gaitasuna kenduta daudenak, lege edo gizarte-xedapenetan hutsegite larriak eta, batik bat, jabetzaren kontrako delituak egin izanaren ondoriozko zigorrak dituztenak, eta azkenik, diziplina-espedientez kreditu-entitateetako kontseilari eta zuzendari izateko gaitasuna kenduta dutenak.
- e) Beste kreditu-entitate batzuetako kontseilariak, administratzaileak eta goi-zuzendariak, kapital sozialean parte hartzen dutenak izan ezik.
- f) Lautik gora kreditu-erakundetako Administrazio Kontseiluko kide direnak. Dena den, ez dira kontuan hartuko kreditu-entitateetako administrazio-kontseiluetao karguak, baldin eta interesatuak, ezkontideak edo aurrekoek edo ondorengoek, batera zein banaka, kapital soziala Administrazio Kontseiluko bokal-kopuruaz zatituz ateratako zenbatekoa baino akzio gehiagoren jabe badira.
- g) Beren kabuz edo beste norbaiten edo entitate baten izenean gure Entitatearekin mugaeguneratutako zor galdagarriak dituztenak, edo karguan daudela Kooperatibarekin hartuta dauzkaten betebeharrak bete ez dituztenak.

Bi. Zuzendari nagusia ezin da Kontseilu Errektoreko kide izan, karguak bateraezinak baitira. Bateriaezintasunak berorien bigarren mailara arteko odol- edo ezkon-senideengan ere izango du eragina. Era berean, kontu-hartzaileak ere ezin dira Kontseilu Errektoreko kide izan, karguak bateraezinak direlako.

Hiru. Inor ezin da, aldi berean, hiru Kooperatiba Elkarte baino gehiagotako Kontseilu Errektoreetako kide izan.

Lau. Kontseiluko kide edo Zuzendariren batengan artikulua honetan zehaztutako debekuren bat egokituz gero, berehala geratuko da kargugabetuta, edozein bazkideren eskaeraz; dena dela, erantzun egin beharko die jokaera desleiala dela-eta izan ditzakeen erantzukizunei. Karguen artean bateraezintasunak daudenean, kasuan kasuko kideak bat aukeratu beharko du bigarren kargurako hautatu ondorengo bost egunetan. Hori egiten ez badu, bigarren izendapenak ez du baliorik izango.

38. artikulua. Kontseilu Errektorearen funtzionamendua

Bat. Kontseilu Errektoreak hilean behin egingo ditu ohiko bilerak; apartekoak, berriz, lehendakariak, gutxienez bi kidek, zuzendari nagusiak edo Kontseilu Sozialak — kideen gehiengoak arrazoiturik— eskatzen dutenean. Eskaerari hamar egunetan erantzuten ez bazaio, eskaera aurkeztu duenak bilerarako deia egiteko eskubidea izango du, baina horretarako, gutxienez Kontseiluaren herena berarekin bat etortzea lortu beharko du.

Bi. Lehendakariak egingo ditu Kontseilu Errektorearen bileretarako deiak, aurreko atalean aurreikusitako kasuan izan ezik. Zuzendari nagusiari, Kooperatibako teknikariei eta gai sozialak egoki bideratzeko interesa dutenei ere egin ahal izango die bileran parte hartzeko deia.

Hiru. Kontseilu Errektorearen bilera balioduna izateko, ezinbestekoa izango da kideen erdia baino gehiago bertan egotea. Kideek ezin izango dute ordezkorik bidali.

Lau. Erabakiak hartzeko, nahitaezkoa izango da baliodun botoen erdia baino gehiago lortzea, indarrean dagoen legedian aurreikusitako suposamenduetan izan ezik.

Kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak berdinketak erabakitzeko balio izango du.

Bost. Bilera-aktetan eztabaiden laburpenak, erabakien testuak eta bozketen emaitzak jasoko dira, eta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte.

39. artikulua. Kontseiluko kideen ordainsariak

Kontseilu Errektoreko kideei gestio zuzeneko lanak gauzatzen dituztenean ordainduko zaie, eta zenbatekoa lan-bazkideentzat ezarritako ordainsari-mailen arabera izango da. Dena den, beren funtzioak betetzerakoan dituzten gastuak ordaindu egingo zaizkie.

40. artikulua. Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizunak

Sozietate Anonimoetako administratzaileentzat xedatutako arauei jarraituko zaie Kontseilu Errektoreko kideek eragindako kalteei dagozkien erantzukizunak finkatzeko. Batzar Nagusiak gehiengo arruntaren bidez hartuko du erantzukizun-ekintza gauzatzeari buruzko erabakia, eta gainera, ez da beharreako izango puntu hori gai-zerrendan egotea.

41. artikulua. Kontseilu Errektorearen erabakiei aurka egitea

Bat. Ustez baliogabeak edo baliogabegarriak diren Kontseilu Errektorearen erabakiei aurka egin ahal izango zaie bilkuraren ondorengo hilabetean edo bi hilabeteetan, hurrenez hurren. Erabakia hartu den eguna izango da aurka egiteko epearen abiapuntua Kontseiluko kideentzat, eta horren berri izan duten eguna, berriz, gainerakoentzat, betiere erabakia hartu zenetik urtebete igaro ez bada.

Bi. Bazkide guztiek, aldeko botoa eman duten eta abstenitu egin diren Kontseilu Errektoreko kideek ere bai, izango dute erabaki baliogabeei aurka egiteko eskubidea.

Honako hauek izango dute erabaki baliogabegarrien kontrako ekintzak bideratzeko eskubidea: Batzarraren bilerara joan eta aktan erabakiaren kontra daudela jakinarazi dutenek, bileran izan ez direnek, botoa emateko eskubiderik gabe bidegabeki utzi dituztenek, kontu-hartzaileek eta bazkideen % 5ek.

Hiru. Gainerako alderdietan, Batzar Nagusiaren erabakiei aurka egiteko ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

42. artikulua. Zuzendari nagusia

Bat. Kontseilu Errektoreari dagokio zuzendari nagusia izendatu, kontratatu eta kargugabetzea. Edonoiz kargugabetu ahal izango dute, Kontseiluko kideen erdiak baino gehiagok erabakiz gero. Dena den, 65 urte betetakoan utzi egin beharko du kargua zuzendari nagusiak.

Bi. 37. artikuluan zehaztutako ezintasun edo bateraezintasunen bat dutenak ezin dira zuzendari izan. Zuzendari nagusiak ezin du kargu bera edo baliokidea bete eta ezin da kontseilari ere izan beste kreditu-entitate, kooperatiba edo merkataritza-sozietate batean, betiere Kooperatibaren ordezkartzan ez bada.

Hiru. Eman dizkioten ahalmenak izango ditu zuzendariak. Hauek, bestek beste:

- a) Kooperatibaren ohiko norabide eta trafikoari dagozkion gaiak.
- b) Urteko Gestio Plana eta Plangintza Estrategikoa egin eta Kontseilu Errektoreari proposatzea. Horretarako ekintzak finkatu eta garatzea.
- c) Langileei, inbertsioei, finantzei eta marketinari buruzko politikak finkatu eta proposatzea. Erabakiak hartzea eta gauzatzeko behar diren neurriak ezartzea.
- d) Departamentuetako zuzendarien eta goi-exekutiboan inguruko izendapenak eta kargugabetzeak Kontseilu Errektoreari proposatzea. Helburu soziala betetzeko behar diren gainerako buru eta exekutiboak izendatzea.
- e) Era guztietako administrazio eta ezarpen-ekintzak burutzea, eta era guztietako eskubideak eta ondasunak salerostea.
- f) Bazkideak edo soldatapeko langileak kontratatzea eta kasuan kasuko kontratua sinatzea.
- g) Kooperatiba edozein agintariren eta, oro har, hirugarrenen aurrean ordezkartzea.

- h) Botereak ematea Kooperatibako bazkideen, langileen eta hirugarrenen alde.
- i) Batzar Nagusien eta Kontseilu Errektoreen ondoriozko jarraibideak garatzeko eta gauzatzeko beharrezkoak izango diren bestelakoak.

Zuzendariaren eskumen izango dira, halaber, lehendakariari Kontseilu Errektorera bilera-deia egiteko eskatzea eta hirugarrenekin eragiketarako egiteko erabakiak hartzea, betiere 13/1989 Legearen 4.2. artikuluan zehaztutako mugak gainditu gabe.

43. artikulua. Kontu-hartzaileak

Bat. Batzar Nagusiak bozketa sekretua egingo du hiru kontu-hartzaile titular eta hiru ordezkari aukeratzeko, eta boto gehien lortu dituztenak izendatuko ditu kargu horietarako.

37. artikuluan zehaztutako debekurik ez duten bazkideak soilik aukeratu ahal izango dituzte kontu-hartzaile. Bazkidea pertsona juridikoa bada, 36.Bi artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

Bi. Kontu-hartzaileak hiru urtez arituko dira jarduera horretan, baina kide bera nahi beste aldiz aukeratu ahal izango dute berriro.

Hiru. Kontu-hartzaileak ez du ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango bere kargua betetzeagatik, baina karguak eragindako gastuengatik konpentsazioa emango zaio.

Lau. 40. artikuluan erantzukizunei buruz adierazitakoak aplikatuko zaizkie kontu-hartzaileei, baina horien erantzukizuna ez da solidarioa izango. Kontu-hartzaileak ezin dira zuzendari, Kontseilu Errektoreko kide eta Errekurtso Batzordeko kide izan, karguak bateraezinak baitira, eta bateraezintasunak bigarren mailara arteko odol- edo ezkon-senideengan izango du eragina.

Bost. Kontu-hartzaileek eginkizun eta ahalmen hauek izango dituzte:

- a) Batzar Nagusirako izendatutako ordezkarien egokitasuna balioztatzea.
- b) Kontseilu Errektoreari ohiko Batzar Nagusirako deia egiteko eskatzea, ekitaldia itxi denetik sei hilabete igaro eta aipatutako deia egin ez bada.
- c) Aparteko Batzar Nagusia egiteko eskatzea.
- d) Batzar Nagusiko gai-zerrendarako proposamenak egitea.
- e) Batzar Nagusiaren erabakiak Legearen edo Estatutu hauen kontrakoak direnean, aurka egiteko ekintzak gauzatzea.
- f) Aplikagarri den legeditik eratorritako gainerakoak.

44. artikulua. Errekurtso Batzordea

Bat. Errekurtso Batzordea sortuko da, eta ondorengo izapideak egin eta ebazpenak emango ditu:

- a) Kontseilu Errektoreak bazkideei ezarritako zigorren kontrako errekurtsoak.
- b) Kontseilu Sozialak Kontseilu Errektoreak kontsumo-aurrerakinez hartutako erabakien kontra jarritako errekurtsoak.
- c) Kooperatiben legedian eta Estatutu hauetan aurreikusitako gainerako errekurtsoak.

Errekurtso Batzordearen erabakiak derrigorrez betetzekoak izango dira.

Bi. Errekurtso Batzordea hamabi kidek osatuko dute, eta Batzar Nagusiak aukeratuko ditu bozketa sekretu bidez, lan-bazkideen eta gainerako bazkideen artean.

Kontseilu Errektorekoak, Kontseilu Sozialekoak, Zuzendaritza Batzordekoak eta kontu-hartzaileak ezin dira Errekurtso Batzordeko kide izan, eta bateraezintasunak Kontseilu Errektoreko kideen eta kontu-hartzaileen bigarren mailara arteko odol- edo ezkon-senideengan ere izango du eragina.

Batzordeko kideek lehendakaria eta idazkaria aukeratuko dituzte euren artetik.

Hiru. Kontseiluko kideek lau urte emango dituzte karguetan, baina aukera egongo da berriro ere kide izateko.

Lau. Errekurtso Batzordearen erabakiak baliozkoak izateko, nahitaezkoa izango da kideen erdia gehi bat egotea bileran.

Bertaratutakoen gehiengo soila izango da erabakiak hartzeko oinarria, eta kideek ezin izango dute beren botoa beste inoren esku utzi. Bozketetan berdinketak daudenean, lehendakariaren botoak erabakiko du emaitza, diziplinaren alorreko erabakiak hartu behar direnean izan ezik.

Bost. Batzordeko kideek epaile eta magistratuentzat finkatuta dauden arrazoi berberak izango dituzte abstentzio eta ezespren-aukeretarako.

Sei. Lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte bilera-aktak, eta horiek erabakien testua jasoko dute.

Aipatutako erabakiak, borondate sozialaren isla diren aldetik, berehala betetzekoak eta behin betikoak izango dira, eta agintari judizialaren aurrean errekurtsoa jartzeko aukera egongo da, Batzar Nagusiak hartutako erabakietan bezala.

IV. kapitulua EKONOMIA ARAUBIDEA

45. artikulua. Kapital soziala

Bat. Bazkideen nahitaezko eta borondatezko ekarpenek osatuko dute kapital soziala.

Bi. Gutxieneko kapital soziala hamar milioi eurokoa izango da, eta erabat ordainduta egon beharko du.

Hiru. Ekarpenak titulu izendunen bidez abonatu dira, eta ehun euroko balio nominala izango dute. Dena den, balore-titulutzat hartuko ez diren titulu anizkoitzak ere jaulki ahal izango dira.

Lau. Bazkide bakoitzaren ekarpenak ezin izango dira guztira kapital sozialaren 100eko 20 baino handiagoak izan, bazkidea pertsona juridikoa denean, eta 100eko 2,5etik gorakoak, pertsona fisikoen kasuan. Kooperatiba-sozietate ez diren pertsona juridikoen ekarpenak guztira ez dira kapital sozialaren ehuneko 50etik gorakoak izango.

Bost. Ordaindutako ekarpenek interesak sortuko dituzte, eta Batzar Nagusiak finkatuko du intereson tasa, betiere legez ezarrita dagoen gehiengo gaintitu gabe.

Sei. Kapital sozialerako ekarpenak itzultzeko honako baldintza hau bete behar da: gutxieneko kapital sozialak, baliabide propioek eta kaudimen-koefizienteak beharrezkoa baino estaldura txikiagoa izatea ez eragitea. Kapital sozialerako ekarpenak itzultzeko, dena den, Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartu beharko du aurrena.

46. artikulua. Nahitaezko ekarpenak

Bat. Bazkide mota eta Kooperatibarekiko jarduera maila kontuan hartuta finkatzen dira gutxieneko nahitaezko ekarpenen zenbatekoa eta dagokien titulu kopurua. Hauek izango dira zenbatekoak:

- a) Pertsona fisikoetan: 2.000 €
- b) Pertsona juridikoetan: 10.000 €
- c) Lan-bazkideetan: 13.000 €

Bi. Harpidetzen direnean osorik ordaindu beharko dira gutxieneko nahitaezko ekarpenak. Lan-bazkideak izango dira salbuespen bakarria, harpidetutakoan 100eko 25 ordaindu beharko baitute, eta, gainontzekoa, gehienez ere bi urtean.

Hiru. Batzar Nagusiak finkatuko ditu, urtean behin, bazkide berrientzako gutxieneko nahitaezko ekarpenak.

Lau. Batzar Nagusiak nahitaezko beste ekarpen batzuk ere finkatu ahal izango ditu, eta zenbatekoak, ordaintzeko epeak eta baldintzak ere ezarriko ditu.

47. artikulua. Borondatezko ekarpenak

Batzar Nagusiak eta Kontseilu Errektoreak kapital sozialerako borondatezko ekarpenak onar ditzakete. Erabakian, gehieneko zenbatekoak eta harpidetzeko baldintzak eta epeak jakinaraziko dituzte. Harpidetzeko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, erabakia hartu den egunetik zenbatzen hasita.

48. artikulua. Ekarpenak nola eguneratuko diren

Bat. Zuzenbide komunezko sozietateentzat finkatuta dauden baldintza eta onura berberak erabiliko dira Kooperatibaren Balantzea eguneratzeko.

Bi. Gainbalioa erabiltzeko ezarritako baldintzak bete ondoren Batzar Nagusiak erabakitzen badu, bazkideek kapital sozialari egindako ekarpenen balioa eguneratzeko edo nahitaezko zein borondatezko erreserba-fondoak handiagotzeko erabiliko da gainbalio hori, urtealdi batean edo hainbat urtealditan. Egoki irizten zaion proportzioa finkatuko da, eta ez dira gaindituko balantzeak eguneratzeari buruzko araudietan erabilgarritasunerako ezarrita dauden mugak. Hala ere, konpentsatu gabeko galerak egonez gero, horretarako erabiliko da gainbalioa, lehenbizi.

49. artikulua. Ekarpenak nola eskualdatuko diren

Bat. Bizien artean, beste bazkide batzuei eta eragiketaren ondorengo hiru hiletan bazkide egin dituztenei soilik eskualdatu ahal izango zaizkie ekarpenak.

Horretarako, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Ekarpenak eskualdatu dituen bazkideak une bakoitzean indarrean dagoen ekarpen minimoa izaten jarraitu beharko du, eragiketa burutu ondoren.
- b) Eskualdaketa ez da erabiliko bazkide berri batek gutxieneko nahitaezko ekarpena egiteko.
- c) Hartzaileak ezin izango ditu kapital sozialari egin dakizkiokeen ekarpenen mugak gainditu.
- d) Ekarpenak eskualdatzeko asmoa Kontseilu Errektoreari jakinarazi beharko zaio, gutxienez hilabete lehenago, organo horrek legeen eta estatutuen arabera aplikagarri diren mugak eta baldintzak betetzen direla egiazta dezan.

Bi. Ekarpenak heriotzaren ondoriozko oinordetza bidez eskualdatu ahal izango dira, baina nahitaezkoa izango da eskubidedunak bazkideak izatea edo sei hilabete baino lehen bazkide bihurtzea.

50. artikulua. Sarrera-kuotak

Batzar Nagusiak urtean behin erabakiko du zenbateko sarrera-kuota ordaindu beharko duten bazkide berriek, baina kuota ezin izango da inoiz nahitaezko ekarpenen 100eko 25 baino handiagoa izan.

Legezko xedapenei jarraiki, kuota hori banagarria ez den Nahitaezko Erreserba Fondoan sartuko da.

51. artikulua. Bazkide laguntzaileen ekonomia-araubidea

Bat. Lan-bazkideentzat une bakoitzean finkatuta dagoen nahitaezko ekarpena ordaindu beharko dute bazkide laguntzaileek gutxienerako nahitaezko ekarpenentzat.

Bi. Bazkide laguntzaileek ez dizkote ekarpen gehiago egin behar izango kapital sozialari. Halaber, ez dute izango ez borondatezko ekarpenik egiterik, ez laguntzaile ez diren bazkideen ekarpenak eskualdaketa bidez eskuratzerik.

Hiru. Gainerako bazkideentzat finkatutako baldintza berberak erabiliko dira bazkide laguntzaileen ekarpenak eguneratzeko.

Lau. Ez dute itzulkinak jasotzeko eskubiderik izango, baina ezarritako interesa sortuko dute.

52. artikulua. Ekitaldiko emaitzak

Emaitzen kontuko saldoa zehazteko, gainerako kreditu-erakundeetako irizpide berberak erabiliko dira, eta hirugarrenekin egindako eragiketen ondoriozko emaitzak eta gainbalioak nahiz edonolako ezohiko emaitzak ere hartuko dira kontuan. Gainera, Kreditu Kooperatibei buruzko Legearen eta Araudiaren arabera, kapital sozialari egindako ekarpena dela eta bazkideei ordaindutako sariak ez dira sozietatearen ustiapen-kostu edo -gastutzat hartuko, Kooperatiben legeria fiskalean ezarritakoa alde batera utzi gabe.

53. artikulua. Soberakinak nola erabiliko diren

Bat. Emaitzen kontuko saldo hartzekoduna, aurreko artikuluan adierazi den moduan finkatua, izango da ekitaldiko soberakin garbia. Aurreko urtealdietako galerak estali eta ordaindutako kapitalerako interesak kendu ondoren finkatuko da soberakin erabilgarriaren zenbatekoa, legeak ezarritako mugak gainditu gabe, jakina.

Bi. Nahitaezko kapitala edo kaudimen-koefizientea estaltzearen ondorioz sortutako betebeharrak bete ondoren, honela erabiliko dira soberakinak:

- a) Gutxienez 100eko 50, Nahitaezko Erreserba Fondoa zuzkitzeko.

- b) 100eko 25, gehienez, sozietatearen eta kooperatiben arteko sustapen-beharrei erantzuteko. Zehatz-mehatz, gutxienez 100eko 10 Heziketa eta Sustapen Fondora bideratuko da eta gehienez 100eko 15 Kooperatiba arteko Fondo Sozialera.
- c) Gainerakoa Batzar Nagusiaren esku egongo da, eta bazkideen itzulkinetarako, Borondatezko Erreserba Fondoak zuzkitzeko eta antzekoetarako erabili ahal izango du.

Kooperatiba-itzulkinetarako zenbatekoa lan-bazkideen eta gainerako bazkideen artean erdibanatuko da.

Lan-bazkideei lan-aurrerakinen arabera abonatuko zaizkie itzulkinak, eta gainerako bazkideei Kooperatibarekin egindako eragiketen arabera.

54. artikulua. Galerak nola egotziko diren

Honela estaliko dira galerak:

- a) Kooperatibaren baliabide propioen kargura. Horretarako, Batzar Nagusiak erabakiko du zenbat egotziko dien Nahitaezko Erreserba Fondoari edo dauden borondatezko erreserbei, eta zenbat kenduko dion kapital sozialari, estornu kooperatibo gisa. Estornu horiek itzulkinetarako finkatutako baldintza berberen arabera esleituko dira.
- b) Galerak sortu ondorengo bi ekitaldietako mozkinen kargura.

V. kapitulua DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

55. artikulua. Desegiteko arrazoiak

Bat. Desegiteko arrazoiak:

- a) Batzar Nagusiak bertaratutako eta ordeztutako bazkideen bi hereneko gehiengoarekin hala erabakitzea.
- b) Arrazoi justifikaturik gabe kooperatibako organoak edo jarduera bi urtez geldirik egotea, eta, ondorioz, funtzionatzeko modurik ez egotea.
- c) Bazkide kopurua legeak finkatutako minimotik behera jaistea edo kapital soziala estatutu hauetan ezarritako minimotik behera murriztea, eta urtebetean egoera ez leheneratzea.
- d) Helburu soziala betetzeko beharrezkoa izatea edo helburu soziala lortzerik ez egotea.
- e) Bat-egitea, xurgapena eta erabateko zatiketa.
- f) Legediak finkatutako bestelako edozein arrazoi.

Bi. Bat ataleko b), c), d) edo f) suposamenduak egokituz gero, Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusirako deia egin beharko du, kasuan kasuko suposamenduaren berri izan eta hilabeteko epean, Batzarrak hartu beharko baitu desegiteko erabakia. Bazkide guztiek izango dute Kontseilu Errektoreari Batzar Nagusirako deia egin dezala eskatzeko eskubidea, desegiteko bidezko arrazoiren bat dagoela uste badute.

Desegiteko erabakia hartzeko, aski izango da botoen gehiengo soila lortzea. Batzarrerako deirik egin ez bada edo Batzarrak ez badu desegiteko erabakirik hartu, edonork eskatu ahal izango du Kooperatiba judizialki desegitea.

Hiru. Sozietatea desegin eta gero ekingo zaio likidazioari, bat-egite, xurgapen edo banaketetan izan ezik.

56. artikulua. Likidazioa

Bat. Likidazio-garaia irekitakoan, hiru likidatzaile izendatuko ditu Batzar Nagusiak, eta indarrean dagoen legedian ezarritako funtzioak izango dituzte.

Desegin eta bi hilabetera ez bada likidatzailerik aukeratu, Kontseilu Errektoreak edo beste edozein bazkidek izango dute lehen auzialdiko epaileari haiek izendatzeko eskaera egiteko eskubidea.

Bi. Sozietateko botoen 100eko 20k likidazio-eragiketak fiskalizatuko dituen kontu-hartzailea izendatzeko eskaera egin ahal izango dio lehen auzialdiko epaileari.

Hiru. Likidatzaileak izendatu arte, Kontseilu Errektoreak jarraituko du Sozietatearen ordezkaritza- eta gestio-lanak betetzen, sozietateak jarduerarik ez izatearen ondorioz kalterik sor ez dadin; sozietatearen ondasunei eustea ere haren erantzukizuna izango da.

Lau. Likidatzaileak izendatutakoan, eta horiek lanean hasi aurretik, Kontseilu Errektoreak likidazioari ekin zaion egunari dagozkion inbentarioa eta balantzea sinatuko ditu beraiekin batera.

Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritzako kideek ezinbestez eman beharko dituzte likidatzaileek eragiketak errazteko eskatutako informazioak eta aurrekariak.

Bost. Sozietateak kaudimenik ez badu, konkurtso-deklarazioa eskatu beharko dute likidatzaileek, konkurtso-leggedian ezarrita dauden epeetan.

57. artikulua. Sozietatearen ondasunak eta azken balantzea nola esleituko diren

Bat. Sozietatearen ondasunak ezin izango dira ez esleitu ez banatu, harik eta zor guztiak kitatu, esleipena egin eta mugaeguneratu gabeko kredituak ordainduko direla bermatzen den arte.

Bi. Zor horiek kitatu ondoren, jarraian zehaztuko dugun ordenan esleituko dira sozietatearen gainerako ondasunak, betiere menpeko finantzaketaren inguruan hitzartutakoei kalterik eragin gabe:

- a) Heziketako eta Sustapeneko Fondoa Kooperatiba elkartuta dagoen federazio-erakundearen esku geratuko da. Horrelakorik ez badago, Batzar Nagusiak erabaki ahal izango du zein federazio-erakunderen esku utziko den zenbateko hori.
- b) Kapital sozialari egindako eta abonatutako ekarpenak itzuli egingo zaizkie bazkideei, aurreko urtealdietako mozkinak edo galerak —eguneratuta— ordaindu edo kendu ondoren. Ekarpenak itzultzerakoan guztiek maila bertsua izango dute, ekarpen batzuen eta beste batzuen artean lehentasunik aplikatu gabe, bazkide edo ekarpen mota dena dela.
- c) Borondatezko erreserba-fondo banagarrietako partaidetzak itzuli egingo zaizkie bazkideei.
- d) Hartzeko likido gehiago egonez gero, Batzar Nagusiaren erabaki bidez izendatutako kooperatiba-sozietatearen edo federazio-erakundearen esku geratuko da.

Hiru. Sozietatearen zorrak kitatu ondoren, Azken Balantzea egingo dute likidatzaileek, eta Batzar Nagusiak onetsi egin beharko du, aurreko atalean adierazitakoari jarraiki aktiboa banatzeko egingo den proiektuarekin batera.

58. artikulua. Azkentzea

Likidazioa bukatu ondoren, sozietatearen desegite-eskritura publikoa egingo dute likidatzaileek, eta legeak eskatutako edukiak jasoko ditu. Kooperatiben Erregistroan inskribatuko dute, eta Kooperatibaren liburuak eta dokumentuak bertan utziko dituzte.

Lehen xedapen gehigarria. Epeak nola zenbatuko diren

Estatutu hauetan egunka finkatu diren epeetan, lanegunak hartuko dira kontuan, ez jaiegunak.

Hilabeteka edo urteka finkatutako epeek, berriz, datatik datara iraungo dute. Mugaegunaren hilean hasierako egunaren parekorik ez badago, hilabeteko azken egunean bukatuko da epea. Eta azken eguna laneguna izan ezean, hurrengo lehen lanegunera luzatuko da epea.

Bigarren xedapen gehigarria. Mondragón Corporación Cooperativako kide izatea

Entitatea MONDRAGON Corporación Cooperativako partaide da, taldeko adar finantzarioan nabarmentzen den burua, alegia. Arrasaten sortu zen esperientzia kooperatiboaren oinarritzko printzipioekin bat egiten du, eta, beraz, haren antolamendua metodo demokratikoetan oinarritzen da.

Borondatezko parte-hartze horren ondorioz, korporazioaren Kongresukideen Batzarrak eta gainerako organoek onetsitako arauak betetzen ditu. Halaber, estatutu hauen eta beren beregi hartutako erabakien edukiaren arabera une bakoitzean erabakitzen dituen eta ezarrita dauden laguntza ekonomikoak ematen ditu Entitateak, helburu horrekin sortutako Kooperatiba arteko Fondo Sozialaren edo beste kontu-sail batzuen kargura.

Lehen xedapen iragankorra. Lehen Kontseilu Errektorea

36. artikuluan aurreikusitakoa bazter utzi gabe, Entitatearen lehen Kontseilu Errektorea hamabost (15) kidek osatuko dute, laneko kontseilariak gain — baldin badago—, Horietatik hamabi (12) titular eta sei (6) ordezkotako Entitatearen proposamenari jarraiki Batzar Nagusiak izendatuko ditu izango dira. Beste hiru (3) titular eta bi (2) ordezkotako, berriz, Ipar Kutxak proposatuta Batzar Nagusiak izendatuko ditu. Hona hemen kontseilarien banaketa:

- Lehendakariaren, lehendakariordearen eta idazkariaren postuak Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito Kontseilu Errektoreko kideek beteko dituzte.
 - 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7., 8. eta 9. kideak Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito Kontseilu Errektoreko kideak izango dira.
 - 10., 11. eta 12. kideak Ipar Kutxak proposatuko ditu.
 - 13. kidea, legeak Kooperatiba behartzen duenean, Kooperatibako langile bat izango da, Kooperatiben legedian aurreikusita dagoenez.
- 1., 2., 3., 4., 5. eta 6. ordezkotako Caja Laboral Popular, Coop. de Crédito kideak izango dira.
- 7. eta 8. ordezkotako Ipar Kutxako kideak izango dira.

Era berean, Kontseilu Errektoreko kideen iraupenari eta kargu-uzteari buruz 36. artikuluan aurreikusitakoa ahaztu gabe, lehen Kontseilu Errektore horren iraupena lau urte eta erdikoa izango da idazkariarentzat, 5.etik 12.era bitarteko kideentzat eta 4.etik 8.era bitarteko ordezkentzat. Gainerako kide eta ordezkoak bi urte eta erdira aldatu beharko dira. Lehen Kontseilua eratzen denetik lau urte iragandakoan, 10., 11. eta 12. kideek eta 7. eta 8. ordezkoek kargua utziko dute behin betiko, eta postuok ez dira berrituko.

Bigarren xedapen iragankorra. Ikuskaritza Batzordea

Lehen Ikuskaritza Batzordea lau kidek osatuko dute.

Lehendakaria, idazkaria eta bi kide izendatzeko, honela jokatu da: horietako hiru kargu Caja Laboral Popular, Coop. de Créditoko Kontseilu Errektoreko kide zirenen artean izendatuko dira; bestea, berriz, Ipar Kutzaren Kontseilu Errektorekoa izango da.

Hirugarren xedapen iragankorra. Gutxieneko ekarpena eta partaidetza-modulua

Estatutu sozial hauetan ezarritakoa alde batera utzi gabe, bat-egitean parte hartu duten erakundeetako bazkideek ez dute bazkide-izaera galduko, nahiz eta aurretik zuten ekarpena kooperatiba berriko gutxieneko ekarpena ez heldu edo bertako gutxieneko partaidetza-modulura ez iritsi. 24 hilean zehar —bat-egitearen hasiera-datatik zenbatzen hasita—, kooperatiba berriko kapitaleko gutxieneko ekarpenari dagozkion eskubide politikoak izango dituzte.

Laugarren xedapen iragankorra. Kooperatibako organoen jardueraraudia

Kooperatiba berriaren Kontseilu Errektoreak kooperatibako organoen jardueraraudia sortu beharko du, eraketaren ondorengo hamabi hilabeteko epean, Batzar Nagusiak eztabaida eta onetsi dezan. Araudi horretan, estatutu hauetan azaldu diren organoen jardueraraudiak garatuko dira.